

AURKIBIDEA

Ekainaren 12an, HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA	4
Ekainaren 19an, KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK	12
Ekainaren 26an, URTEAN ZEHARREKO XIII. IGANDEA	19
Uztailaren 3an, URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA	26
Uztailaren 10ean, URTEAN ZEHARREKO XV. IGANDEA	33
Uztailaren 17an, URTEAN ZEHARREKO XVI. IGANDEA	40
Uztailaren 24an, URTEAN ZEHARREKO XVII. IGANDEA	47
Uztailaren 25ean, SANTIAGO APOSTOLUA	55
Uztailaren 31an, LOIOLAKO SAN IGNAZIO	63

Pentekoste ondorengo Igandea

Ekainaren 12an

HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA

Kontenplalarien aldeko Jardunaldia

Agurra

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta Jainko Aitaren maitasuna eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Hirutasuna da Kristauon Jainkoa. Horixe aitortzen dugu Kredoan, Aita, Semea eta Espiritu Santua sinesten ditugula aitortuz. Horixe adierazten dugu egunean zehar, otoitzean nahiz ospakizunean kristauon seinale den gurutzea gudan egitean. Kreatzaile, salbatzaile eta bizi-emaile dugun Jainko horrek markatzen gaitu.

Otoitzari emanak bizi direnak, lekaide eta lekaime kontenplalariak gogoratuko ditugu gaur. Eliza osoaren alde, mundu osoaren alde otoitzean bizi dira beraiek. Gaur guk egingo dugu otoitz bereziki beraien alde, Jainkoari eskerrak emanaz, Eukaristia santu honetan.

Damu-otoitza

Eska dezagun apaltasunez Jainkoaren barkamena eta errukia:

—Jesus Jauna, zeruko Aita ezagutzera **e**man diguzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Espiritu Santua gure bihotz barrenean **ja**rrri diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin elkar maitasunean bizi zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko Aita, egiaren Hitza den zeure Semea
eta Espiritu santutzailea bidali dituzu mundura
gizon-emakumeei zeure misterio miragarria agertzeko;
egizu, egiazko sinesmena aitortuz,
ezagut dezagula betiereko Hirutasunaren aintza
eta gurtu dezagula Batasun ahalguztiduna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Askok dio Jainkorik ez dela edo isilik dagoela. Baina bihotzez garbi denarentzat, hurkoa maite duenarentzat eta gauza harrigarrien aurrean lilurutzen denarentzat Jainkoa ez dago isilik. Holakoentzat Jainkoa beti da berritzailea.

Lehenengo irakurgaia (Es 8, 22-31)

Esaera Zaharrak liburutik

Honela mintzo da Jainkoaren Jakinduria:

«Bere jardueraren hasieran sortu ninduen Jaunak,
bere lehenbiziko egintzen aurretik.

Betidanik eratua naiz hasiera-hasieratik,
lurra izan baino lehenagotik.

Ur-leizerik ez zenean izan nintzen sortua,
 iturbururik ere ez zegoenean.
 Mendiak landatuak izan aurretik,
 muinoak baino lehen izan nintzen sortua;
 artean ez zituen Jainkoak mundu hau eta kanpokoak eginak,
 ezta unibertsoaren lehengaiak ere.

Zerua ezarri zuenean, han nintzen ni,
 ur-leizearen gainetik zeru-sabaia jarri zuenean;
 hodeiak goian finkatu
 eta leizeko iturriak tinko ezarri zituenean,
 itsasoari mugak jarri
 –urak muga horietatik atera ez zitezen–
 eta lurrari oinarriak sendotu zizkionean,
 haren ondoan nengoen ni, obra-maisu bezala;
 haren gozamina nintzen egunero,
 haren aurrean jolastuz aldi oro;
 ludiarekin jolasten nintzen
 eta gizakiekin nuen gozamina».

Erantzun-salmoa (Sal 8, 4-5. 6-7. 8-9)

Jau - na, gu - re Jau - na, bai mi - ra -
 ga - rri - a zu - re i - ze - na lur - bi - ra o - so - an!

- ∞. Zure eskuen lana **den** ortzia
eta sortu dituzun ilargi-izarrak **ikusita**,
zer da gizakia, Zu hartaz **oroitzeko?**,
zer gizasemea, Zu hartaz **arduratzeko?** ∞.
- ∞. Ia jainko baten pareko **egin** duzu,
aintzaz eta distiraz **kor**oatu;
zeure eskulan guztien buru **ipini** duzu,
denak haren mende **jarri** dituzu. ∞.
- ∞. Ardi- eta be**hi**-taldeak,
baita basapiz**ti**ak ere,
zeruko hegaztiak eta itsas**ko** arrainak,
itsasoan dabil**tzan** guztiak. ∞.

Bigarren irakurgaia (Erm 5, 1-5)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Jainkoak fedeagatik zuzentzat hartu gaituenez gero, bakean gaude harekin, Jesu Kristo gure Jaunari esker. Honi esker, sinesmenagatik eman digu Jainkoak grazi egoera honetan bizitzea, eta harro gaude Jainkoaren aintza iritsiko dugun itxaropenez.

Eta ez hori bakarrik; harro gaude atsekabeez ere, jakinik atsekabeak pazientzia duela ondorio, pazientziak probaldia gainditzeko gaitasuna eta probaldia gainditzeak itxaropena. Itxaropenak ez du huts egiten, Jainkoak bere maitasuna isuri baitigu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez.

Aleluia (Ik. Ap 1, 8)





∞. Aintza Aitari, eta **Seme**ari,
 eta Espiritu **Santu**ari,
 baden, eta bazen, eta etortzekoa den **Jain**koari! ∞.

Ebanjelioa (Jn 16, 12-15)

Homiliarako argibideak

Aitarena den guztia nirea ere bada

Bere xalotasun eta tolesgabetasunean, bere familiari buruzko guztia kontatu digu Jesusek, baita gauza intimoak ere, bai baitzekien ez zegoela ezkutatu beharreko trapu zikinik. Hark hitz egin digu Jainko Aitaz, Semeaz eta Espiritu Santuaz. Guk, fededunok, ezagutzen ditugu pertsona horiek, eta **familia-harremana** dugu beraiekin, seme-alaba maite modura hartu baikaituzte euren etxean. Badakigu ez direla gaztelu misteriotso batean bizi, baizik eta gardena dela guztia, maitatzea eta maitatua izatea bezain gardena. Jesusen eskutik, Hirutasuneko pertsona bakoitzarekin pertsonalki erlazionatzen ikasi dugu.

Israelgo herriak ere hurbileko errealitate pertsonal gisa espermentatu zuen Jainkoa, Israel hautatu zuenez, herria Harekin egindako itunari leial izatea espero baitzuen. Hala, harreman pertsonal familiarrak ziren Jainkoaren eta Israelen artekoak. Familiaren irudien bidez adierazten dira, Senarraren eta Emaztearen irudien bidez, batez ere. Israelek modu berezian espermentatu zuen Jainkoaren Jakinduriaren eta Espirituaren presentzia bere historia zehatzean. Jakinduria hori bertan zegoen sorreraren unean, eta gizakien seme-alabekin zuen gozamena (*Es Za 8, 22-31*).

Esperientzia horiekin, ez zitzaien zaila izan Jesusen ikasleei Jainko presente egiten zela Harengan, eta Jesusek intimitatezko harreman berdingabea zuela Aitarekin. Aitarengandik jasotzen zuen Jesusek dena, eta Aitari itzultzen zion dena (*Jn 16, 12-15*). Baina Jesusen piztueraren ondoren, batez ere, Espiritua Jesusengan eta euren bizitzan zegoela esperimintatu zuten ikasleek. Hark isurtzen baitzigun Jainkoaren maitasuna gure bihotzetara, Hirutasunaren bizia (*Erm 5, 1-5*).

Esperientzia iraultzailea zen, zinez, pentsamendu biblikoarena. Antzinako erlijioetan, Jainkoa bilatzen eta maitatzen du gizakiak, baina Jainkoak ez du maitasunez erantzuten. Zeregin garrantzitsuagoak ditu Hark, eta ez du denbora gizakien arazoekin galtzen. Espirituari esker esperimintatu dugu historikoki Jainkoaren maitasuna. Semea gu guztiongatik ematea izan da maitasun horren adierazpena, Jainkoaren etsai ginenean, hain zuzen ere. Jainkoaren **barkamenaren esperientzia** da Jainkoaren maitasun baldintza-gabea esperimintatzen uzten digun lehenetako bat. Baketze eta adiskidetze esperientzia da, Jainkoaren seme-alaba sentiarazten gaitu, eta hortaz, Jainkoaren maitasuna.

Jainkoaren maitasuna, egunerokotasunean bizi duguna, kristau **itxaropenaren bermea** da, bai baitaki maitasuna ez dela hiltzen, behin betikoaren aurrerapena dela. Itxaropen horri esker, gure ausardia eta erresistentzia frogatuta geratzen dira, gure bizitzan bizi ditugun zailtasunen aurreko ontasunaren aldeko pertseberantziaren bitartez. Kristauak badaki Jaun berpiztuak munduko indar hondatzaile guztiak garaitu dituela. Horregatik, ez dugu etsitzen, ez dugu amore ematen; aitzitik, mundu berria guztiontzat hel dadin borrokatzen gara.

Espirituak eusten gaitu eguneroko borroka horretan, eta Jesusek iragartzen zuen **benetako egian** murgiltzen gaitu. Haren ikasleek,

gertatzera zihoanaren alde iluna bakarrik ikusten zuten nekaldiaren bezperan. Espirituak sartuko ditu, pixkanaka, Berpiztuaren behin betiko errealitatean, mundu honetako gorrotoa eta gaizkia gainditu baititu. Egia hori **pertsona bat** da, baina. Azkenean, konturatuko dira Jesusen bizitzan bete-betea agertu zaiela Jainko Aita. Jesusekin bizi izateko zoria izan zuten ikasleek. Harekin bizitzea Aitarekin bizitzea zen, azken batean.

Eukaristiaren ospakizunean esperimentatzen dugu batez ere Hirutasunaren maitasuna. Bertan, eskerrak ematen dizkiogu Jainko Aitari Jesusengatik Espirituan, salbatu egin gaituelako eta haren bizitza jainkotiarrean sartu gaituelako, munduan presente egin dezagun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz Aita maitagarri dugun Jainkoari, Jesu Kristogan bere maitasuna agertu digunari eta Espirituaz eragiten digunari.

- Jainko Aita Sortzaileak mundua bere betera eraman dezan, eta hitz emandako zero-lur berriak sorraraz ditzan, gizadi osoak egiazko zoriona aurkitu eta Bere aurpegi aintzatsua goza ahal izateko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gizon eginik Elizarekin bat egin zen Jainkoaren Seme Bakarrak, eman diezaiola Elizari berari emazte bezala erantzuteko Bere maitasun betea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Mundua bere dohainez aberasten duen Jaunaren Espiritua behartsuentzat aita, nahigabetuentzat atsedean, gaixoentzat osasun eta erorientzat indar gerta dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hirutan bakarra den Jainkoaren misterioa ezagutzen dugunok, Haren berri eman diezaiogun ezagutzen ez dutenei, pozez

ezagutu dezaten Aita, Seme eta Espiritu agertu zaigun Jainkoa. Eska diezaiogun Jaunari.

Gorets zaitzala Jauna Zure Elizak, jakinduriaz egin baituzu mundua, Jesu Kristoren bidez salbatu baikaituzu eta Espiritu Santuaren indarrez santu egin; entzun Zure herriaren otoitzak eta egizu egiaren betea ezaguturik, Zu adora zaitzagula, egia, maitasuna eta bizia baitzara. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko gure Jauna, betiereko Hirutasun Santua
eta haren Batasun hautsezina aitortu dugu;
egizu, hartu dugun sakramentu honetan
aurki dezagula gorputz-arimen osasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Hirutasun Santuaren ondorengo Igandea

Ekainaren 19an

KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK

Caritasen Jardunaldi berezia

Agurra

Jesu Kristoren grazia eta bakea izan bitez zuekin

Sarrerako oharpena

Ongietorri! Kristoren gorputz-odolen jaija dugu gaur. Eukaristia ospakizunari berari eta, honek gure bizitzan duen luzapenari begira jartzen gaitu gaurko jaiak. Gure lanetan, gure izate osoan, aurkitzen ditugun pertsonetan presente egiten da bizi-bizi Eukaristiaren dohaina. Gure bizitzaren erdigune dira ogi-ardo hauek. Gure ogi eta ardoari (gure bizitzako gauza apalei) izen berria, izate berria ematen baitie. Hauxe da ba gaur ospatzen duguna, Caritassek gogorarazten dizkigun behartsuak ahaztu gabe: beraiek gertatzen baitira Eukaristia, esker on.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak misterio santuak ospatzeko gai izan gaitzen

—Jesus Jauna, zerutik jaitsi zen **O**gia zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, betiko bizia ematen duen **O**gia zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure biziaz janar**it**zen gaituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko,
sakramentu harrigarri honetan
zeure heriotzaren oroigarria utzi diguzu;
egizu, gorets dezagula fede biziz
zure Gorputz Odolen misterioa,
geuregan zure erospenaren ondorenak suma ditzagun beti.
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Ebanjelioan ikusiko dugu Jesusek zer egin zuen eta zer agindu zigun; san Paulok agertuko digu lehen ikasleek nola bizi zuten beraien bizitzaz Maisuaren oroigarria egitea. Abraham bedeinkatu zutenekoa entzuteak prestatuko gaitu.

Lehenengo irakurgaia (*Has 14, 18-20*)

Hasiera liburutik

Egun haietan, Melkisedekek, Xalemgo erregeak, ogi-ardoak atera zituen, Goi-goiko Jainkoaren apaiza baitzen, eta Abram bedeinkatu zuen, esanez:

«Goi-goiko Jainkoak, zeru-lurren egileak, bedeinka dezala Abram.

Eta bedeinkatua izan bedi Goi-goiko Jainkoa, zeure etsaien garaile egin zaituelako».

Abramek harrapakin guztien hamarrenak eman zizkion Melkisedeki.

Erantzun-salmoa (*Sal* 110 [109], 1. 2. 3. 4)

A-pai - za za - ra behin be - ti - ko, o - gi
 ta ar - do - a es - kain - tze - ko.

- ∞. Hona Jaunak nire Jaunari esana:
 «Eseri nire eskuinean,
 zeure etsaiak oinazpian jartzen dizkizudan **bitartean**». ∞.
- ∞. Siondik zabal**tzen** du Jaunak
 zure errege-makilaren agin**pidea**;
 mendera itzazu gudu**an** etsaiak. ∞.
- ∞. Zu nagusi garaipen-**egunean**
 santutasun-**distiraz**;
 gatzetasun-ihintza datorkizu egunsenti**aren** altzotik. ∞.
- ∞. Zin egina du Jaunak eta ez da **damutuko**:
 «Apaiz **zara** Zu,
 Melkisedek bez**ala**, betiko». ∞.

Bigarren irakurgaia (*1 Ko* 11, 23-26)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker onezko otoi-tza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri».

Afalondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri».

Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte.

Aleluia (*Jn 6, 51-52a*)



℣. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia, **di**o Jaunak;
ogi honetatik jaten duena betiko **bi**ziko da. ℟.

Ebanjelioa (*Lk 9, 11b-17*)

Homiliarako argibideak

Eman zuek jaten

Gizarte arloan sartu gabe Elizak erlijioaz bakarrik arduratu behar duela uste dutenen aurrean, gogorarazi behar da gorputzaz ere arduratu dela historian zehar, ez arimaz bakarrik. Lehena izan da beti pertsonen beharrak ikusten. Horrekin, ez zuen Jesusi jarraitu besterik egiten, gaitasun berezia baitzuen jendearen beharrak antzemateko. Elizak garrantzi handia ematen dio **gorputzaren errealitateari, eta Kristoren Gorputzaren jai ospatzen du**. Jesus berpiztuaren gorputzak horren nekaldiaren arrastoak ditu, mundu honetan gaur ere irauten duenarena.

Ebanjelioak gorputzaren errealitatearen erlazioan jartzen gaitu, horren adierazpen funtsezko batekin: **gosearekin** (*Lk 9, 11b-17*). Jesusen ikasleek horren atzetik doan jendetzaz libratu nahi dute eta agur esateko eskatzen diote, bazkaltzera joan ahal izateko. Jesusek, aldiz, betebehar garrantzitsuaren aurrean jartzen ditu: eman zuek jaten.

Ikasleen gogoeta logikoa zen, jende gehiegi baitzegoen eta, gainera, leku gorri batean zeuden, beharrezkoa lortu ezinezko leku batean. Bost ogi eta bi arrain besterik ez zuten. Nahikoak dira, baina, Jesusek miraria egin eta jendetza guztia asetzeko. Ikasleak **tresnak dira**, Jesusek jendetzari elikagaiak helarazteko erabiliko dituen tresnak, hain zuzen ere.

Jesusek es du, gaur egun, gureak ez beste besorik, jendea elikatzeko. Ogien biderketaren mirariak eukaristiari egiten dio erreferentzia, noski, gizakien artean zatitu eta partekatutako ogi zati gisa. **Senidetasunaren ogia da**, elkartasunaren ogia. Eukaristiaren inguruan sortu zen Eliza. Jesusen heriotzaren eta piztueraren oroigarriak gorputz bakar batean batzen zituen gizakiak. Horietako bakoitza eta guztiak prest zeuden Jaunaren heriotza horren itzulera arte aldarrikatzeko. Jesusen oroitzapen horrek ez gaitu lasai uzten. Hori bera egiteko deia da, Haren oroigarri. Horrela, gure garaikide bihurtze da Jesus, eta mundua salbatzen jarraitzen du.

Jainkoak, biziaren sortzaileak, elikagaien bidez mantentzen du gure bizia. Jainkoaren dohain eta gure lanaren fruitu dira horiek ere. Kristoren gorputzaren bitartez, Jainkoaren bizia bera dator gugana. Kristoren gorputza Kristoren pertsona bera da, noski, Berpiztuaren pertsona, egun batean gure bideetan barrena ibili zenarena (*1 Ko 11, 23-26*). Jesus da gure **elikagaia**. Gizakia ez da ogitik bakarrik bizi, Jainkoaren ahotik irtete den hitz orotik baizik. Hitza da Jesus, Jainkoaren Hitza, eta betiko bizitzaren inguruko bere hitzez elikatzen du gure bizia.

Gizakia benetan da gose, bizitzari zentzua emateko gose. Jesusengan, haren bizitzan eta irakaspenetan aurkitzen dugu Egia, Jainkoaren eta gure egia. **Maitasun gosea** gu gizakiak batik bat. Maitasunak elikatzen du gure bizia. Jesusek bere maitasunarekin elikatzen gaitu elkertasunaren ogian. Harreman pertsonal batzuk benetan dira elikagai; beste batzuek, aldiz, goseak uzten gaituzten beti. Gure gosea asetzearekin batera, harekin bat egiteko gogoia handia sortzen digu Jesusek, harekin **eraldatzeko** gogoia.

Horixe da eukaristiaren edertasuna. Ez gara gu Jesus gure bizitzan onartzen dugunak. Aitzitik, Jesus bera da gur bere bizitzara eramaten gaituen, Jainkoaren bizitzara. Orain, Eukaristia honetan, har dezagun Jauna gure bizitzan, eta utz diezaiogun Hura sartzen, guk ere gure anaia-arrebak elikatu ahal izan ditzagun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Gizaki guztiak salbatzen dituen Pazkoa berrituko dugun mahai santua prestatu baino lehen, zuzen diezazkiogun Jainko Aitari gure otoitzak, entzungo gaituela uste osoz sinetsiz:

- Gotzainek eta apaizek bat egin dezatela Jaunarekin Eukaristian buru egiten dutenean, herri osoak ikus dezan horiengan, Bere izenean bildu dituen Kristoren irudi bizia.
- Kristau guztiok Eliza bakarraren batasunean Eukaristia ospatuko dugun eguna iritsi dadin, gizaki guztiek munduaren alde batetik besteraino Kristoren Gorputz-Odolen oparia eskain dezaten.
- Hilzorian dauden fededunek mundu hau bakean utz dezaten, eta Jaunaren promesak itxaronez eta Kristoren Gorputzak sendotuta zorianaren eta biziaren erreinura iritsi daitezten.

—Jaunak fedean eta maitasunean sendo gaitzan, espirituz eta egiaz gurtu dezagun Eukaristi Sakramentuan egiaz presente egiten den Kristo Jauna.

Entzun, Aita on, Zure Semearen Gorputz-Odolen pazko sakramentua ospatzen ari den familia honen otoitzak eta isuri Espiritu Santuaren dohain ugariak, horiez indarturik gure bizitza zukanako esker on izan dadila, eta gizaki orok zor dizun gorapenaren agerpen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Egitera goazen diru-bilketa, Parrokiako Caritasen beharretan laguntzeko izango da. Horrela agerian jartzen dugu, Eukaristian Kristoren eskaintzarekin bat egitea, bizitzan behartsuei lagunduz gauzatzen dela.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Emaguzu, Jauna, orain hartu ditugun
zure Gorputz eta Odol baliotsuez aurreratu diguzuna,
zure jainkotasunaren betiereko gozotasunaz ase gaitezen.
Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.**

Ekainaren 26an
URTEAN ZEHARREKO XIII. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Jauna gure artean da egiaz. Bere bizitza eta hitza deigarri dira guretzat. Kristori jarraitzeko gogoz, Haren Ebanjelioa onartzeko asmoz eta Ebanjelio horretan seme-alaben askatasun osoa aurkitzeko pozez bildu gara: askatzaile gerta dakigula Berri Ona.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrea garelako, bekatuak hilik bizi berrira piztu gaitzen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, seme-alabatzen hartu gaituzu maitasunez
eta agiaren seme-alaba egin gaituzu;
egizu, ez gaitzala inguratu gezurraren ilunpeak
eta bizi gaitzela beti zure egiaren argi ederrean.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Historian zehar, Jainkoak gizaki batzuk aukeratu ditu bereziki bere izenean bidaltzeko. Gero Jesusekin gertatu zen bezala, Itun Zaharrean ere garbi entzuten da Jainkoaren deia, erantzun libre eta benetakoa espero duen deia. Entzun dezagun!

Lehenengo irakurgaia (1 Erg 19, 16b. 19-21)

Erregeak lehenengo liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zion Eliasi: «Gantzu ezazu Eliseo, Xafaten semea, Abel-Meholakoa, zeure ondorengo profeta».

Joan zen Elias menditik, eta Eliseo, Xafaten semea, aurkitu zuen goldean; hamabi idi-pare zituen aurrean, berak hamabigarrena zeramala. Ondotik igarotzean, Eliasek bere soingainekoa bota zion gainera. Eliseo, orduan, idiak utzirik, Eliasen atzetik joan zen lasterka eta esan zion: «Uztazu, arren, aitari eta amari agur esaten, eta jarraituko dizut gero». Eliasek esan zion: «Zoaz, baina itzuli. Badakizu zer egin dizudan».

Joan zen Eliseo, idi-parea hartu eta oparizat hil zuen; uztarriaz su egin, haragia erre eta jaten eman zion jendeari. Gero jaiki eta Eliasi jarraitu zion, haren zerbitzura jarritz.

Erantzun-salmoa (Sal 16 [15], 1-2a eta 5. 7-8. 9-10. 11)



Zu zai - tut, Jau - na, on - da - su - na.



- ✠. Gorde nazazu, Jainko, Zugan bainaiz **ba**besten.
 Hau diotsot Jaunari: «Zu zaitut neure **re** jabe».
 Jauna, Zu zaitut neure ondarea, neure **edont**zia,
 zure esku dago nire **zor**ia. ✠.
- ✠. Bedeinkatzen dut Jauna, aholku baitit **em**aten,
 gaez ere berak du nire barrua **he**zten.
 Begi aurrean dut Jauna **eteng**abe;
 hura eskuinean dudala, ez naiteke **dar**dara. ✠.
- ✠. Horregatik, alai dut bihotza, pozik **er**raiak,
 atsedenean lasai **gor**putza.
 Ez baituzu nire bizia Herio-leizera **egot**ziko,
 ezta ere zeure fededuna hilobian galtzen **ut**ziko. ✠.
- ✠. Bizirako bidea erakutsiko **di**dazu;
 alaitasunez beteko nauzu zeure **aur**rean,
 zorionez betiko zeure **on**doan. ✠.

Bigarren irakurgaia (Ga 5, 1. 13-18)

San Paulo Apostoluak Galaziarrei egindako gutunetik

Senideok: Libre izateko askatu gaitu Kristok; iraun ezazue, beraz, sendo eta ez makurtu berriro esklabotzaren uztarpera.

Zuek, senideok, askatasunera deitu zaituzte Jainkoak; baina ez bekizue askatasun hori aitzakia izan grina txarren arabera bizitzeko; bestela baizik, egin zaitzatela maitasunak elkarren zerbitzari. Zeren lege osoa betetzen baita agindu bakar hau betez gero: «Maita ezazu zeure lagun hurkoa zeure burua bezala». Baina elkarri hozka eta

elkar irentsi beharrean bazabiltzate, elkar suntsituko duzue azkenean.

Hauxe diotsuet: Bizi zaitezte Espirituari dagokionez, eta ez grina txarrei jarraituz. Giza grinak Espirituaren aurkakoak dira, eta Espiritua giza grinaren aurkakoak. Bi indar horiek elkarren aurka dabilta; horrela, ez duzue nahi zenuketena egiten. Espirituak gidatzen bazaituzte, ordea, ez zaudete legearen menpe.

Aleluia (1 Sm 3, 9; ik. Jn 6, 68c)



∇. Mintza, Jauna; zure morroi hau **adi** dago;
zure hitzek betiko bizia dute. ∇.

Ebanjelioa (Lk 9, 51-62)

Homiliarako argibideak

Aztera begiratzen duena ez da gai Jainkoaren Erreinurako

Orain dela ez urte asko, langileak bere soldataren, ordutegiaren eta oporren inguruko desioak adieraz zitzakeen lan-kontratu bat sinatzeko orduan. Gaur egun, ordea, ez zaio inori halakorik galdetzen; lana ematen duenak zehazten du hori guztia, eta esker onekoa izan behar duzu, gainera. Euren kontura lan egiten dutenek lan jakin bategatik kobratzen dutena ezartzen dute, oraindik, baina horrek ez du esan nahi emango diotenik. Ez bagaitu konbentzitzen, merkeagoa bilatzen dugu. Jesusek ikusmin handia piztu zuen bere

garaian, eta falta izan **probetxu ateratzeko** elkartu zitzaion jenderik. Asko, baina, aho bete hortz utzi zituen Jesusek, bere jarraitzaileak Berak aukeratzen zituela eta baldintzak Berak jartzen zituela erakutsita. Hark egiten du deia eta baldintzarik gabeko erantzuna eskatzen du.

Jesusi jarraitzeko giza proiektuan, bat ezin da ekintzaile izan. Hautatua izatea predilekzio seinale da, Jesusen maitasunaren seinale. Horregatik, poza da jarraipena. Ezaugarriek eta prestakuntzak gutxi balio dute. Jesusen deia egiten du, eta ez du uzten baldintzarik jartzen. Horiek ez dute horrenbeste zerikusirik egin beharreko lanarekin, jarraitu beharreko bizimoduarekin baizik. Jesusen jarraitzaile izatea ez da horrenbeste gauzak egitea, izateko, bizitzeko, jokatzeko, mundua ikusteko modu bat baizik. Erreinua **kristau maitasunaren** bidez presente egitea kontua. Gainerako metodo guztiak suntsitzaileak izan daitezke (Ga 4, 31-5, 13-18).

Ikasleek pentsa dezakete Jainkoaren Erreinua eta justizia edozein preziotan ezartzea dela kontua, baita Jainkoaren suarekin ere. Jesusek ez du Santiagori eta Juani errieta egin beste erremediorik, bestelakoan handinahiak direnei, baliabideak eta metodoak bilatzeko orduan eskrupulu gutxi dituztenei. Jesusek ez ditu onez onez onartzen bat-batean berarekin joan nahi dutenak ere (Lk 9, 51-61). Euren proiektu propioarekin doazen pertsona eskuzabal eta asmo onekoei, Jesusek ikusarazten die Berak bakarrik jar ditzakeela baldintzak, eta ez bere jarraitzaile izan nahi dutenek. Inork Jesusi jarraitzeak **onura materialak** ekarriko dizkiola pentsa ez dezan, taldeak bizi dituen muturreko baldintzak jartzen ditu Jesusek pertsonaren aurrean. Bizitza ibiltaria da, egurats zabalean. Ez dago aterpe iraunkorrik, animaliek ere halakorik eduki arren.

Jesusi jarraitzeak betebegar sakratuenetatik libratzen duela dirudi, gurasoei lur ematetik, adibidez. Berrikuntza dakar Jesusek, ordea:

bizitzaren erreinuan kokatzen du pertsona; beraz, bat ezin da hildakoei lur emateaz arduratu. Beste batzuk arduratuko dira horiez. Ikaslea **Erreinu** **iragartzera** deituta dago, eta ezin du denbora beste ekintzetan galdu, oso sakratuak ematen badute ere.

Erreinuaren etorrerak balio guztiak erlatibizatzea dakar, baita sakratuenak ere. Jesusek eta lehen kristauak ongi dakite familia bezalako errealitate horiek, horrenbeste sakralizatzen ditugunak, oztopo izan daitezkeela fedearentzat eta hari jarraitzeko. Familiari agur esatea pentsatzea bakarrik, horrekin ongi geratzeko, atzera begira jarraitzea da, **iraganera**. Pertsona mota horrek ez du Jainkoaren Erreinurako balio. Fededunak datorren Erreinuaren etorkizunera begiratzen du, ez da atzean utziaz kezkatzen.

Esajeratua dirudi honek guztiak, baina Jainkoaren Erreinu ezeri uko egin gabe lor daitekeen “grazia merke” ez bihurtzeko modu bakarra da. Eliseok bezala egin behar da, berehala obeditu, baten duena sakrifikatu eta bati tokatu zaion loteriagatik, Erreinuaren zerbitzura deitua izanagatik, bankete bat ospatu (*1 Erg* 19, 16-21). Eukaristiaren ospakizunak Kristoren atzetik jarraitzea eta Jainkoaren etorkizunera eramán gaitzala, berriz atzera begiratu gabe.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska diezaiogun Jaunari, senideok, entzun ditzala konfiantzaz eta pozez egiten dizkiogun otoitzak:

- Eska diezaiogun Kristo Jaunari bere bizitza Jaunaren zerbitzura sagaratu duten Eliz zerbitzarien alde eta egiazko Jainkoa gurtzen duten herri guztien alde.
- Eska diezaiogun mundua jakinduriaz gobernatzen duen Jainkoari gu guztion alde, mundua eta natura bereziki arretaz eta esker onez zaindu dezagun.

- Eska diezaiogun Jainko errukitsuari giza ahultasunaren, gorrotoaren eta enbidiaren sareetan lotuta bizi diren guztien alde.
- Eska diezaiogun Jaunari batak bestearen alde, jar dezagun gure bizitza Beraren eskuetan eta egiogun otoitz uste onez gauza guztien Egile eta Nagusi denari.

Zure sakramentuak ospatzera biltzen gaituzun Jauna, entzun gure otoitzak eta zaindu ezazu gure askatasuna Zure maitasunaren indarrez, senideekiko zerbitzu apalean Kristoganako gure leialtasuna gorde dezagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Eskaini eta hartu dugun opari santuak biziberri gaitzala, Jauna,
maitasunean etengabe Zurekin bat eginik,
beti iraungo duten fruituak eman ditzagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Uztailaren 3an
URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA

Agurra

Gure bihotza Jainkoa maitatzera zuzentzen duen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jaunak bildu gaitu: ikasle hobeak eta leialagoak izan gaitezen; honela prestatuko gaitu Berak, Erreinuaren Berri Ona zabaltzera bidaltzeko. Ospa dezagun alaitasunez gure fedea.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gu kondenatzera ez, baizik salbatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bihotz-berritzen den bekatari bakar batengatik, zeruan poz handia izango dela esan zenuena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, asko maite izan duenari asko barkatzen diozuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, zure Semearen beheratzeaz,
jaso egin duzu eroria zegoen mundua;**

**eman zeure fededunei egiazko pazko-poza,
bekatuaren uztarpetik askatu dituzunek
goza dezatela betiko zoriona.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jesusekin topo egiten duen edonork, bere bizitza pozez betea eta baketua aurkitzen du, eta ez du isilik gordetzen barnean duen bizipena. Entzun dezagun arretaz Jainkoaren Hitzaz, eta jaso dezagun bere mezu bikaina eta benetan baliotsua zaiguna.

Lehenengo irakurgaia (*Is 66, 10-14c*)

Isaias Profetaren liburutik

Poztu zaitzete Jerusalemekin,
alaitu harekin, maite duzuen guztiok!
Izan orain harekin zoriontsu, harengatik dolu egin zenutenok!
Asetzeraino edango duzue haren bular gozotik,
atseginez xurgatuko haren ugatz oparotik.

Zeren hau baitio Jaunak:

«Ibaika ekarriko diot Jerusalem zoriona,
erreka betean nazioen ondasuna.
Bularra emango dizuete,
altzoan eramango eta magalean gozatuko.
Amak haurra kontsolatzen duen bezala,
halaxe kontsolatuko zaituztet Nik;
bai, Jerusalem kontsolatuko zaituztet.
Hau ikustean, poztuko zaizue bihotza,

belar berria bezala loratuko dira zuen hezurrak,
eta Jaunak bere ahalmena agertuko die bere zerbitzariiei»..

Erantzun-salmoa (Sal 66 [65], 1-3a. 4-5. 6-7a. 16 eta 20)

Lur o-so-a, e-gi-o-zu i-rrin-tzi Jain-ko-a-ri.

- ✠. Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari,
kanta haren izen ospetsuari,
eman aintza eta gorespen hari.
Esan Jainkoari: «Zein izugarriak diren zure egintzak!». ✠.
- ✠. Mundu osoa ahuspezten da zure aurrean,
kantu degizute, kantu zure izenari.
Zatozte eta ikusi Jainkoak eginak,
izugarriak dira gizakien aldeko haren egintzak. ✠.
- ✠. Lehor bihurtu zuen itsa-soa,
oinez igaro zuten ibaia;
poztu gaitezen, beraz, harekin.
Nagusi da betidanik bere ahalmenaz. ✠.
- ✠. Zatozte eta entzun, Jainkoari begirune diozuenok,
kontatuko dizkizuet hark nire alde eginak.
Bedeinkatua Jainkoa, ez baitu baztertu nire otoitza,
ezta aldendu ere nigandik bere maitasuna. ✠.

Bigarren irakurgaia (Ga 6, 14-18)

San Paulo Apostoluak Galaziarrei egindako gutunetik

Senideok: Niri dagokidanez, Jainkoak libra nazala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren gurutzean izan ezik; Kristo gurutzean hil zenez gero, mundua hilik dago niretzat eta ni munduarentzat. Izan ere, erdaindua izateak nahiz erdaingabea izateak ez dio axola; balio duena sorkari berri izatea da.

Bakea eta errukia arau honi lotuak bizi direnei, baita Jainkoaren Israeli ere! Hemendik aurrera ez diezadala inork nekerik eman: Jesusen zauri-markak neure gorputzean baitaramatzat nik.

Senideok, Jesu Kristo gure Jaunaren grazia zuen espirituarekin. Amen.

Aleluia (Kol 3, 15a. 16a)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∞. Kristoren bakeak agindu beza zuen **bihotzean**; bizi bedi oparo zuengan Kristoren **ren** hitza. ∞.

Ebanjelioa (LK 10, 1-12. 17-20 edota laburrago Lk 10, 1-9)

Homiliarako argibideak

Hurbil da Jainkoaren erreinua

Hogeita bost urte baino gehiago dira Joan Paulo II. Aita Santuak “ebanjelizazio berrirako” deia egin zuela. Gaur egun, tradizionalki kristauak diren herrialdeen ebanjelizazioak ez du aurrera egin, alderantziz, atzera egiten ari da nabarmen. Frantzisko Aita Santuak gaia landu nahi izan du “Ebanjelioaren pozarekin” ikuspegi berria

emanda. Orain arte, asko intsistitu da, eta arrazoiarekin, gure inperioko kultur aldaketetan eta ebanjelizatu beharreko pertsona mota berrian. Azkenaldian, baina, ikusten ari gara arazoa ez dela bakarrik ebanjelizatu beharreko gizakia, baizik baita **ebanjelizatzen duen Elizan** ere. Gure Elizbarrutiak ere ildo honi jarraituz landu eta argitaratu berria du pastoral marko berria: “Irteerako eliza” izena duena. Kristorekin pertsonalki bat egin duen kristaua eta bere bizitza eraldatuta ikusteko poza espermentatu duena bakarrik da gai, berri hori beretzat ez gordetzeko, komunikatu egin behar du.

Jasotako Ebanjelioarekin leial den heinean bakarrik jarrai dezake Elizak Jesusek eta bere ikasleek hasitako ebanjelizazioa. Lekuko sinesgarrien presentziak bakarrik egin dezake egungo Jesusen Berri Ona. Historiako garai bakoitzean, **Jesus bera** da bere ikasleak bidaltzen jarraitzen duena (*Lk* 10, 1-12. 17-20). Jesusen misioa onartu behar dute, eta ez beste bizimodu bat asmatu. Elizak giza logika askori jarraitu diela ikusten ari gara gero eta gehiago, eta ez Jesusen jarraibideei, Vatikanoko II. Kontzilioan berretsitakoei.

Ebanjelioaren iragarpenaren edukia berdina da beti: “*Hurbil da Jainkoaren erreinua*”. Hori da zapalduta eta atsekabetuta dauden guztiak kontsolatzen dituen berri ona (*Is* 66,10-14). Jainkoa hurbil egoteak sufrimenduaren eta zapalketaren amaiera iragartzen du. Jainkoak bere herriaren alde esku hartuko du, eta bakea eta **ondasun piloa** ekarriko dizkio.

Misioa betetzeko moduak Jesusek hamabi ikasleei emandako irakaspenak errepikatzen ditu, eta Jesusen misioaren estiloa erakusten dute. Paulok bezala, honela esan dezake bakoitzak: “Neure gorputzean daramatzat Jesusen markak” (*Ga* 6,14-18). Binaka doaz, iragartzen duten esperientziaren lekuko sinesgarri izateko. Misioa beti da **zaila**, babesik gabe baitago bat beti, ardiak otso artean bezala. Ikasleari ez zaio uzten bizirik irauteko

beharrezkoak diren bitartekoez hornitzen. Probidentzietan eta Erregetza iragartzen dieten pertsonen harrera onean sinetsi behar du, eta sendaketen bidez egiten dute presente. Ez dute ilusiorik egin behar, ordea, baztertu egingo dituzte askotan.

Ikasleak oso pozik itzuli ziren misio hartatik, mirari handiak egin baitzituzten Jesusen izenean. Ebanjelioa iragartzea Satanasen porrota da, Jesusen arabera. Hala ere, egiten dituen mirariek ez dute izan behar ikaslearen pozaren oinarri, zeruan zain duen sari handiak baizik. Jesusen misioan parte hartzea haren **zori loriatsuan** parte edukitzea da, Aitaren ondoan.

Eliza Eukaristiaren inguruan eraikitzen da, Eliza misiolari gisa, bere Espirituaren bitartez gizaki guztiak bil ditzala eskatzen baitiogu Aitari. Eukaristia bakoitzean espermentatzen dugu Jainkoaren erreinua hurbil dela eta Jainko Jauna gure bila datorrela.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak:

- Egigun otoitz Frantzisko Aita Santuaren eta Frantzisko gure gotzainaren alde; Jaunak eman diezaiela adorea eta argia beren ardurapeko elkarteak santutasunez zaindu ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egigun otoitz Jaunak egiazko bakea eman diezagun; bakearen egiazko iturria denak eman diezagula bizikidetzeta baketsua eta barneko espirituzko-bakea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egigun otoitz Ebanjelioaren bidean zintzo saiatzen diren guztien alde, Jaunak asmo horretan lagun diezaien; eta berekoikeriak Jainkoarengandik urruntzen dituenak izan dezatela bihotz berria iristeko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.

—Egiogun otoitz Jainkoari hildakoen alde, bereziki gure senide, adiskide eta ongile hildakoen alde. Jaunak bere erruki handiz bere aintzan onar ditzan santu eta aukeratu guztien artean. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Zuk dei egiten diguzu, mundu osoan Ebanjelioaren poza hots egin dezagun; entzun gure otoitzak eta emaguzu apostoluen ausardia eta askatasun bera, Zure maitasun- eta bake-hitzak munduan presente egin ditzagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Mugarik gabeko zeure maitasunaren dohainez
janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, lor ditzagula salbamen-fruituak
eta bizi gaitzela beti Zu goresten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Uztailaren 10ean
URTEAN ZEHARREKO XV. IGANDEA

Agurra

Jainko Aitagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik bakea, maitasuna eta sinesmena zuekin.

Sarrerako oharpena

Jaunaren izenean bilduak gaude, senideok. Munduko Eliza ikusgarri gertatzen da elkarte honetan, asko nahiz gutxi Jaunaren aginduari erantzunez Eukaristia ospatzeko biltzen garenean.

Damu-otoitza

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekataritza aitortuz, eska diezaiozun errukia Jainkoari

—Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia eman duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, okerbidean dabilzane
zeure egiaren argia agertzen diezu
bide zuzenera itzul daitezen;
egizu, beren burua kristautzat daukatenek
utz dezatela izen horrekin bat ez datorren guztia
eta bete izen horri dagokiona.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Maitasuna eta biziaren aldeko apustua eta behartsuenengandik hurbil egotea dira kristauon agindu nagusiak. Hauek ez gaituzte munduko beste arauetatik libratzen, baina bai zuzengabekeria eta utzikerien aurrean aske egiten, Ebanjelioarekin leialak izateko.

Lehenengo irakurgaia (*Dt* 30, 10-14)

Deuteronomioa liburutik

Moises honela mintzatu zitzaion Israel herriari: «Obedituko diozu Jaunari, zeure Jainkoari, legearen liburu honetan idatzitako beraren aginduak eta legeak betez, eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz itzuliko zara Jaunagana, zeure Jainkoagana.

Izan ere, gaur nik ematen dizudan agindua ez da zure indarrez gaindikoa, ezta eskurazina ere. Ez dago zeruan, zuek hau esateko: “Nor igoko zaigu zerura, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?” Ez dago itsasoaz bestaldean ere, zuek hau esateko: “Nor joango zaigu itsasoaz bestaldera, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?” Zeren esku-eskura baituzu hitza, zeure ahoan eta bihotzean, bete dezazun».

Erantzun-salmoa (*Sal* 69 [68], 14 eta 17. 30-31. 33-34. 36ab eta 37)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-
a be-re be-ti - ko e-rru - ki - a.



- ✠. Nik Zuri degizut otoitz; ' mesede-garaia duzu, Jauna.
 Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz, '
 zeure salbamen leialaz.
 Erantzun, Jauna, samurra baita zure maitasuna,
 bihurtu nigana begiak zeure erruki handiaz. ✠.
- ✠. Ni, berriz, gizagaixo atsekabetu hau,
 indarberri nazala, oi Jainko, zure salbazioak.
 Jainkoaren izena kantuz dut goretsiko,
 esker onez handietsiko. ✠.
- ✠. Ikus ezazue, apalok, eta poztu,
 izan bihotz, Jainkoaren bila zabiltzatenok.
 Izan ere, entzuten die Jaunak behartsuei,
 ez ditu gutxisten berari txikiak. ✠.
- ✠. Salbatuko du, bai, Jainkoak Sion,
 eraikiko ditu berriz ere Judako hiriak.
 Jainkoaren zerbitzarien ondorengoak izango dira oinordeko,
 haren izena maite dutenak han biziko. ✠.

Bigarren irakurgaia (Kol 1, 15-20).

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik

Jainko ikusezinaren irudi da Kristo,
 sorkari guztietan lehen-sortua.

Haren bidez sortu zituen Jainkoak
 zero-lurretan diren gauza guztiak,
 ageri direnak eta ez direnak:

munduan eragina duten ahalmenak,
 nagusitzak, aginteak eta botereak;

sortua izan den guztiak Kristo du eredu eta helburu.

Gauza guztiak baino lehenagokoa da hura,
eta hari esker diraute.

Hura da gorputzaren buru, Elizarena, alegia.

Hura da hasiera, hildakoen artetik lehen-piztua,
gauza guztietan hura izan dadin lehenengoa;
Jainkoak nahi izan baitu

bere izaeraren betea Kristogan egotea,

eta honen bidez gauza guztiak berekin adiskidetzeara,

Kristok gurutzeara isuritako odolaz bakeak eginez

zeruko eta lurreko gauza guztiekin

Aleluia (Ik. *Jn* 6, 63c. 68c)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∕. Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira,
zure hitzek betiko bizia dute. ∕.

Ebanjelioa (*Lk* 10, 25-37)

Homiliarako argibideak

Egizu beste horrenbeste

Errefuxiatuen krisiak zapore txarra uzten die askori. Agerian geratzen da europarrok jada praktikatzen ez ditugun balio batzuek harrotzen garelara. Errua ezin zaie gobernuei bota. Agintariak nahiago badute sarritan dirua errefuxiatuak urrun mantentzeko eman, euren herrialdeetan hartu baino, europarrek bertan nahi ez dituztelako da.

Izan ere, balioei baino gehiago botoei begiratzen diete agintariak. Litekeena da Elizak eta kristauak berdin erreakzionatu izana. Errefuxiatu batzuk berarekin ekartzeko Aita Santuaren keinuak ez du asko balio izan, Gaur, inoiz baino gehiago behar dugu Eliza samariarra, gure munduko biktimengana hurbiltzen dakiena. Ekiteko garaia da, zaurituta daudenengana hurbiltzeko eta horien gertuko bihurtzeko unea. Agindu hori erraza da betetzen. Nahikoa da **abian jarri nahi izatea** (*Dt 30, 10-14*). Ez zaigu eskatzen munduaren azken muturrera joatea, inguruan dugun errealitatez jabetzea baizik, besterik ez.

Historian zehar, espezialista izan da Eliza beharrak ikusten eta erakunde modura erantzun egokiak ematen. Gaur egungo beharrak hain direnez handiak, fededunen ekintza gaitasuna gainditzen dute. Horregatik, prest egon behar dugu borondate oneko gizakiekin kolaboratzeko, errukia sentitzen dutenekin eta zaurituta eta odoletan dauden pertsonen kargu egiteko eskuak zikintzeko prest daudenekin. Beharrezkoa da boluntarioria bultzatzen jarraitzea, hori baita gaur egun Ebanjelioaren erdian dauden **errukizko lanak** egiteko modu zehatza.

Ebanjelioak aipatzen duen lege-maisua zer egin nahi zuen jakin nahi zuen, eta Jesusen eskutik aurkituko du **erantzun zehatza** (*Lk 10, 25-37*). Azkenean, fede juduaren molde estuetatik irteteko eta sufritzen eta pairatzen ari den gizaki ororengana hurbiltzeko gonbita espermentatuko du. Asmatutako istorio baten bitartez, Jesusek hankaz gora jarriko ditu aurreko planteamendu guztiak. Legean oso argi zegoen nor zen hurkoa. Israelgo herriarena zena, alegia. Baliteke batzuk kanpokoengana apur bat zabaldu izana.

Bikaina da Jesusek hurbiltasuna **datu objektibo** gisa ez zehaztea, hortxe, baten aurrean dagoelako. Hurkoa izatea nire esku dago, ez bestearen esku. Bestearengana hurbiltzeko gai banaiz, orduan bada

hurkorik. Nire buruan eta nire interesetara itxita banago, ez dago hurkorik. Hori da gaur egun European gerta dakigukeena. Lehen, nahiko urrun zeuden afrikarrak, eta hispanoamerikarrak zer esanik ez, eta ez gintuzten hurko modura kezkatzen. Gaur egun gure artean bizi dira, baina oso zaila da hurko modura ikustea, ez baitugu beraiengana hurbildu nahi.

Erljio juduaren ordezkariak, apaizak eta lebitarrak, beharrezan ikusten dute gizakia, bere herriaren beharrezan, baina itzuliguru bat eman eta aurrera jarraitu zuen. Ez dira hurko egiteko gai, hurbildu eta zaurituaren ondoan geratzeko gai. Kontrako aldean, samariarraren, **arrotzaren**, jokabidea deskribatzen du Jesusek, gizakiaren errealitateko hurbiltasun eredu modura. Bestearen kaltearen aurrean errukia sentitzeko gaitasunetik dator pertsonenganako hurbilketa. Bihotzak bultzatzen du pertsonengana hurbiltzera eta haien alde gure esku dagoen guztia egitera. Samariarraren erruki sentimenduak ez dira sentimendu huts izango, zaurituaren aldeko hainbat neurri praktikoa hartzera eramaten dute.

Jainko ikusezinaren irudi izanda, Jesus bezalako pertsona bat bakarrik da gai bekatuagatik zaurituta dagoen gizakiarengana hurbiltzeko (*Kol* 1,15-20). Jesus da samariar ona, **Jainkoa hurbileko egin diguna**. Haren arrastoei jarraituz, Eliza samariarra izan nahi du gaur egungo Elizak ere, bandidoen eskuetan erortzen diren gizakientzat. Eukaristia honek errukiaren ministro egin gaitzala, gure munduko zauriak sendatzeko gai.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: iritsi daitezela gure otoitzak Jaunarengana, gure bihotzak ezagutzen dituenarengana.

- Eska dezagun Jainkoaren Semearen jakinduria Jainkoaren Hitza leialtasunez aldarrikatzen dutenentzat eta Eliza zerbitzatzen duten guztientzat.
- Eska diezaiogun egiaren jabe bakarra den Jaunari, katolikoak ez diren beste kristau guztien alde, itun zaharraren herri diren juduen alde eta egiazko Jainkoa ezagutzen duten guztien alde.
- Eska diezaiogun Jesus Salbatzaileari etxetik urruti bizi diren guztien alde, kartzelatuen, ahulen eta zapalduen alde eta pertsegituak direnen guztien alde.
- Eska diezaiogun fedez zeruko Jaunari, hemen, bere etxean bilduak gauden guztion bakearen eta zorionaren alde.

Jainko ahalguztidun errukitsua, maitasunaren aginduan bildu dituzu legeko betebehar guztiak; entzun gure otoitzak eta emaguzu bihotz eskuzabala, senideen sufrimenduen aurrean Zure Semearen irudira, samariar on bezala joka dezagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zeure mahaian janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, misterio hauetan parte hartzen dugun bakoitzean
sendo dadila gure salbamenaren emaitza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Uztailaren 17an
URTEAN ZEHARREKO XVI. IGANDEA

Agurra

Jainko itxaropen-emailea, Espiritu Santuaren egintzari esker bere pozaz eta bakeaz betetzen gaituena, izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Bihotz zabaleko elizaren, harrera oneko elizaren ezaugarri da gure batzarra: hemen denok pareko eta duinak sentitzen gara. Apostoluaren deiari erabat erantzuteko bidean gara: «onartu batak bestea, Kristok onartzen zaituzten moduan».

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekatuak ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Begira, Jauna, begi onez zeure zerbitzarioi
eta emazkiguzu ugari zeure graziaren dohainak,**

**fedez, esperantzaz eta maitasunez suturik
zure aginduak betetzen erne iraun dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzak itxaropenezko mezua agertzen digu. Jainkoak, gu ontasunean eta maitasunean bizitzea nahi du. Eta nahiz sarritan gu bestela bizi, zain dugu beti bigarren aukera emateko. Jainko barkamen-emaile hori bera agertuko digu Jesusek Ebanjelioan.

Lehenengo irakurgaia (*Has 18, 1-10a*)

Hasiera liburutik

Egun haietan, Jauna agertu zitzaion Abrahami Mambreko artadian. Abraham oihal-etxolaren sarreran eserita zegoen, berorik handieneko orduan. Begiak jasorik, hiru gizonetako ikusi zituen bere aurrean zutik. Ikusi orduko, lasterka joan zitzaien etxolaren sarreratik eta, ahuspez jarririk, esan zuen: «Ene Jauna, gogoko banauzu, ez jarraitu aurrera zeure morroiarekin gelditu gabe. Ura ekarriko dizuet, oinak garbitzeko, eta zuhaizpean hartuko duzue atsedean. Jatekoa ere ekarriko dizuet, indarberri zaitetzen, eta gero jarraituko diozue bideari; zerbaitegatik igaro zarete zeuen morroi honen ondotik». Haiek erantzun zioten: «Egizu diozuna».

Abraham lasterka sartu zen oihal-etxolara, Sara emazteagana, eta esan zion: «Bizkor, egizu oreka irin garbiz eta presta itzazu opilak». Abraham bera bizi-bizi joan zen ukuilura eta, zekor gizen on bat aukeraturik, morroi bati eman zion; honek berehala atondu zuen. Gero, hartu zuen Abrahamek gatzatua, esnea eta atondutako

zekorra, eta bisitariei eraman zien. Haiiek jaten zuten bitartean, zutik egon zen bera haien ondoan zuhaizpean.

Bukatzean, galdetu zioten: «Non da Sara, zure emaztea?» Abrahamek erantzun: «Hor, oihal-etxolan». Haietako batek esan zion: «Urtebete barru ziur itzuliko natzaizu, eta ordurako zure emazte Sarak semea izango du»..

Erantzun-salmoa (Sal 15 [14], 2-3b. 3c-4b. 5)



- ∞. Akatsik gabe eta zuzen jokatzen duena; bihotzean egiazale izan eta mingainaz inor belzten ez duena. ∞.
- ∞. Hurkoari gaitzik egiten ez diona, auzokoa iraintzen ez duena. Jaunak baztertua gutxiesten duena eta jainkozaleak ohoratzen dituena. ∞.
- ∞. Dirua lukurreriaz mailegatzen ez duena ezta errugabearen kaltetan eskupekorik hartzen ere. Horrela jokutzen duena ez da sekula koloka egongo. ∞.

Bigarren irakurgaia (Kol 1, 24-28)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik

Senideok: Pozik nago orain, zuen alde jasaten ditudan sufrimendu-
engatik; horrela, neure gorputzean jasaten ari naizen atsekabeen
bidez Kristoren atsekabeak osatzen ditut, haren gorputza den
Elizaren alde. Jainkoak Elizaren zerbitzari egin nau eta bere mezua
zuei oso-osorik adierazteko eginkizuna eman dit.

Mezua Jainkoaren asmo ezkutuari buruzkoa da, mendeetan eta
gizaldietan gordea eduki ondoren, orain Jainkoak bere fededunei
agertu diena. Hauei jakinarazi nahi izan die Jainkoak zein aberats eta
aintzatsu den jentilentzat asmo ezkutu hori; zuengan den eta
aintzarako itxaropen duzuen Kristori buruz ari natzaizue. Kristo
hauxe ari gara hots egiten, denei aholku emanaz eta jakinduria
guztiz irakatsiz, denak beren kristau-bizitzan heldutasun betera hel
daitezen.

Aleluia (Ik. Lk 8, 15)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∞. Zorionekoak Jainkoaren hitza
bihotz onez eta zabalez entzunik,
barruan gorde eta iraupenez fruitua ematen dutenak. ∞.

Ebanjelioa (Lk 10, 38-42)

Homiliarako argibideak

Hitza entzun

Dibertsioaren gure kulturak kentzen digu gure denbora guztia eta, azkenean, ez dugu astirik pertsoneri entzuteko, arreta pertsonengan jartzeko. Jendetzen eta horrenbeste distrakzioen erdian, baina, interesarekin eta adeitsu hartuko duen norbaitekin barrua husteko eta pentsatzen edo sentitzen duena esateko beharra du gizaki modernoak, askotan. Marta, Maria eta Lazaro Jesusen hiru lagun maite ziren, momentu zoragarriak igarotzen zituen haiekin. Bi ahizpak **ekintza desberdinak** burutzen ageri dira gaurko ebanjelioan.

Kristau tradizioak batzuetan bi ahizpa horietan bizitza aktiboaren eta kontenplatiboaren eredia ikusi duen arren, guztiok landu beharreko bizitzako **bi dimentsio** ordezkatzeko dituztela ematen du gehiago. Bizitzan, jaso eta eman egiten dugu, jasotzeko ematen dugu. Maitasuna jaso nahi dugu batez ere, maitasuna emateko. Maitasun hori maitasun-iturriari erreparatzen dionean sentitzen du batek. Jainkoak maitatu gaitu lehendabizi.

“Hitzak” hebreeraz duen esanahiaren bi alderdi bereizezin dira entzun eta zerbitzatu, kontenplatu eta jardun. “Hitza” beti da sortzailea. “Hitza” errealitate eta ekintza da aldi berean, ez hitz hutsak soilik. Hitza entzuten duenak Jainkoa eta Kristo aurkitzen ditu bizitzan. Bere bizimodua eta ekintzak aldatuko dituen **barne eraldaketa** bizi du. Horixe bizi du batek otoitzarekin, hori benetakoa denean, Jainkoaren aurrean dagoenean. Jainkoa jardunean ari da beti eta haren aurrean jartzea mundua salbatzeko bere jardunean sartzea da.

Martak maisua zerbitzatzen du, Mariak entzun egiten dio. Martak Mariak bere hitza entzuteko ministerioa zerbitzuaren alde utz dezan nahi du (*Lk* 10, 38-42). Babestu ez ezik, **beharrezkoa den gauza bakarra** eta onena hitza entzutea dela adieraziko du Jesusek. Beharrezko gauza bakarra izateak ez du beste ministeriorik ez

dagoenik esan nahi. Elizako bizimodua ez du beharraren legeak gidatzen, **Espirituaren dohainen aberastasunak** baizik.

Jesusek Maria goratzen du, bere bizitzan zentratzen jakin duelako, beharrezkoa dena bakarrik bilatzen eta alderik onena hautatzen. Beharrezko aldea ez da beti onena. Kasu horretan bai, ordea. Jainkoaren hitza entzutea da **beharrezko gauza bakarra**, baita batek egin dezakeen gauzarik onena ere. Hori da batek eman dezakeen zerbitzurik onena. Zerbitzu praktikoa ere badu bere balioa, noski, balio erlatiboa da, ordea.

Segur aski, dena zerbitzu praktikora murriztu nahi izatea eta batek egin beharreko gauza bakarra hori izatea nahi izatea da Martaren akatsa, eta ez ahizpak bezala denbora galtzea. Segur aski, horrek amorratzen du Marta. Bere ikuspegia inposatu nahi dio ahizpari eta, horretarako, Jesusen babes bilatzen du. Jesusen ez dio emango, baina. Mariak, berriz, **errespetatu** egiten du Marta egiten ari dena, eta ez dio eskatzen mugitzeari uzteko eta Jesusen oinetan eseri eta hari entzuteko.

Abrahamen adibidea (*Has* 18,1-10) oso esanguratsua da. Hiru mezulariren gisara egiten dio abegi Jaunari. Bere etxolan hartuko ditu, denbora eskaini eta zerbitzatzeko beharrezko guztia emango die. Aginduak ematen ditu, baina bera ere mugitzen da, lanean hasten da. Geroago, elkarrizketa mamitsua edukiko du haiekin. Pertsonenganako arreta eta jateko beharraren zerbitzu zehatza **integratzen** jakin du.

Eukaristian, Jainkoaren hitza entzuten da eta Jaunak guretzat prestatu duen banketean parte hartzen da, biak integratzen dira, eta bizi izan dugun Jainkoaren maitasuna presente egitera bidaltzen gaitu. Horrela, bete-betean bizi dugu eliza-bizitzaren aberastasun guztia.

Jainkoaren herriaren otoitza

Otoitz egin diezaiogun, senideok, errukiaren Jaunari gure ahultasunean lagun gaitzan, Berak nahi bezala bere izenari dei egin diezaiogun.

- Elizen arteko bakearen alde, kristau guztien batasunaren alde eta gure zorionaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunen alde, beraien ardurapean bakezko eta ongizatezko bizitza izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etxetik urrun direnen alde, gaixoen eta kartzelatuen alde, sufritzen duten guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Fedez eta begirunez biltzen den gure elkartearen alde, gure parrokian on egiten duten guztien alde eta behartsuei laguntzen dietenen alde. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Jauna, igandea ospatzera bildu den Zure herriaren otoitzak, eta egizu, Zure Semearen hitza entzunez eta biziaren bere ogitik janez egiazko profeta eta betiko biziaren iturrira garamatzan artzain on aitor dezagula. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin,
eta zerutar misterioak ezagutarazi dizkiezunei emaeizu,
beren izate zaharra utzirik,
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Uztailaren 24an
URTEAN ZEHARREKO XVII. IGANDEA

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Jaunaren izenean bildu gara, bere izenean otoitz egiteako. Entzungo dugun Jainkoaren Hitzak lagunduko digu gure otoitza kristau-otoitz bihurtzen. Eukaristiako Ogiak indartuko gaitu, Hitz horren baitan bizitzen.

Damu-otoitza

Jesu Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egin digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitezela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, Zu **zara** gure bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zu **zara** gure egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu **zara** gure bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, Zugan uste on dutenen babesa zarena,
Zu gabe ez da ezer sendorik, ez ezer santurik;
erakutsiezaguzu zeure erruki handia,
Zu gidari eta erakusle zaitugula,**

**zuhurtasunez balia gaitezen lurreko gauzez,
eta oraintxedanik betiko ondasunei itsatsirik bizi gaitezen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Ez dagoenetik guztia sortzen du Jainkoak. Maitasun eza maitasun, pobrezia aberastasun... gure eskuzabaltasuna eta bere asmoaren onarpena nahi ditu. Gurekin eraiki nahi du biziaren Erreinua.

Lehenengo irakurgaia (*Has 18, 20-32*)

Hasiera liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zuen: «Izugarria da Sodomaren eta Gomorraren kontrako salakuntza, eta larriegia hiri horien bekatua. Salakuntza hori egia ala gezurra den ikusi behar dut».

Gizasemeek handik atera eta Sodomarantz jo zuten; Abraham, berriz, Jaunaren aurrean zutik gelditu zen. Hurbildurik, esan zion Abrahamek: «Egiaz, errugabea ere galdu egin behar ote duzu errudunarekin batean? Beharbada, badira berrogeita hamar errugabe hirian. Horiek ere galdu egin behar ote dituzu? Ez ote diozu barkatuko hiriari berrogeita hamar errugabe horiengatik? Utikan zugandik horrelakorik egitea, errugabea errudunarekin batera hilaraztea! Nola jokatuko duzu, bada, berdin batarekin zein bestearekin? Zuk ez horrelakorik! Munduaren epaileak ez ote du zuzenbiderik egingo?»

Jaunak erantzun zion: «Sodomako hiri barruan berrogeita hamar errugabe aurkitzen badituz, hiri osoari barkatuko diot haiengatik».

Eta Abrahamek berriz: «Ausardia da benetan hauts eta errauts naizen honek neure Jaunari hitz egitea. Gerta daiteke berrogeita hamarrera iristeko bost falta izatea; hiri osoa suntsituko ote duzu bost horiengatik?» «Ez –erantzun zion Jaunak–, ez dut suntsituko, hirian berrogeita bost aurkitzen baditut». Oraindik ere Abrahamek: «Gerta daiteke berrogei besterik ez izatea». Jaunak erantzun: «Ba, ez dut suntsituko berrogei horiengatik».

Orduan, Abrahamek esan zion: «Ez zaitez haserretu, ene Jauna, hizketan jarraitzen badut. Gerta daiteke hogeita hamar besterik ez izatea». «Ez dut suntsituko, hogeita hamar aurkitzen baditut», erantzun zion Jaunak. Abrahamek berriro: «Badakit ausartegia naizela; baina gerta daiteke hogei besterik ez izatea». Jaunak erantzun: «Ez dut suntsituko hogei horiengatik». Eta Abrahamek: «Ez haserretu, Jauna, beste behin mintzatzen banatzaizu. Gerta daiteke hamar besterik ez izatea». Jaunak erantzun zion: «Ez dut suntsituko hamar horiengatik».

Erantzun-salmoa (Sal 138 [137], 1-2a. 2b-3. 6-7. 8)

Es - ke - rrak Jau-na - ri, A - ren mai - ta - su - na be -
 ti - ko - a bait da.

-1

- ∇. Eskerrak ematen dizkizut, Jauna, bihotz-**bi**hotzez,
 nire hitzak entzun di**tuz**ulako;
 kantuz goratzen zaitut aingeru**en** aurrean,
 eta zure tenplu santurantz begira **ahus**pezten naiz. ∇.

- ✠. Eskerrak ematen dizkiot zure izenari, ‘
 zure maitasun eta leialtasunagatik,
 paregabeak egin baitituzu ‘
 zeure izena **eta** promesa.
 Dei egin nizunean, erant**zun** zenidan,
 kemena bizkortu **bih**otzean. ✠.
- ✠. Gorena da, bai, Jauna, ‘
 baina umilari dio **beg**iratzen;
 harroari, berriz, urrutitik **ant**zematen.
 Larrialdian aurkitzean, ‘
 bizia babesten didazu etsaien amorru**aren** aurrean,
 eskua luzatu eta sal**bat**zen nauzu. ✠.
- ✠. Dena egingo du Jaunak **nire** alde.
 Jauna, zure maitasuna **bet**ikoa,
 ez utzi bertan behera zeure **esku**en lana! ✠.

Bigarren irakurgaia (*Kol 2, 12-14*)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik

Senideok: Bataioaren bidez, Kristorekin hobiratuak izan zarete, eta piztu ere, harengan piztu zarete, hura hildakoen artetik piztu zuen Jainkoaren ahalmenean sinetsiz.

Garai batean, hilda zeundeten zeuen bekatuengatik eta erdaingabeak izateagatik; baina Jainkoak biziarazi egin zaituzte Kristorekin batera, bekatu guztiak barkaturik. Gu gaitzesten gintuen epai-agiria suntsitu egin du eta, gurutzean josiz, deuseztatu.

Aleluia (*Erm 8, 15*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∞. Seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu **du**zue, eta Espirituaren bidez «Abba!», hau **da**, «Aita!», hots egiten diogu **Jain**koari. ∞.

Ebanjelioa (*Lk 11, 1-13*)**Homiliarako argibideak***Eskatu eta emango zaizue*

Pertsona gehienek otoitz egiteari utzi diote. Baliteke txikitan otoitz egin izana eta Jainkoari gauzak eskatu izana. Ateratako inpresioa da Jainkoak ez ziela entzuten eta denbora galtzea zela Jainkoari gutaz interesatzeko eskatzea. Gure Aita erakustean, ordea, otoitza beti entzuten dela dio Jesusek. Behin eta berriz intsistitu behar da, egia (*Lk 11, 1-13*). Aita ona da Jainkoa, eta bere seme-alaben ona bilatzen du etengabe.

Ateak itxita jarraitzen duen inpresioa dugu askotan, ez dela zabaltzen. Kafkak kontaktzen du pertsona batek Elizan sartu nahi duela, eta ez dela atea zabaltzeko gai, nahiz eta behin eta berriz bultza egin. Denbora puska baten ondoren konturatuko da atea kanporantz zabaltzen dela, ez barrurantz. Guri ere hori gertatzen zaizu, agian. Bultza eta bultza egiten dugu, Jainkoa mugitzeko, hark erakar gaitzan errazagoa izanda; ez guk nahi duguna egin dezan, **guk Hark nahi duena nahi izan dezagun** baizik.

Aitagureak Jainkoaren intimitatean murgiltzen gaitu, mundua Jainkoaren begiekin ikusteko. Jainkoak maitasunez ikusten du mundua, eta horregatik ezartzen du bere Erreinua. Jainkoaren izena santifikatu egiten da gure bizitzarekin Jainkoa santu dela adierazten dugunean, hau da, **Jainkoak maitatu eta salbatu egiten gaituela**. Orduan ezartzen da haren santutasunezko, justiziazko, maitasunezko eta bakezko Erreinua. Jainkoaren dohaina da gugan hartzen duguna eta munduan presente egiten duguna. Barkamenaren Erreinua da, gizakiak Jainkoarekin eta elkarren artean elkartzen ditu. Horregatik gara barkamenaren ministro, gainerakoak barkatuta. Mundu honetan bizi garenez, oraindik, Jainkoaren babes eta laguntza behar ditugu egunero, fedea uzteko eta bizitza teilatutik behera bizitzeko tentazioaren aurrean.

Espiritu Santuaren dohaina eskatu behar dugu batez ere. Horrek ditu gainerako dohain guztiak eta Jainkoari eskatzen dizkiogun gauza onak. Espiritu Santua eskatzea Jainkoaren maitasuna eskatzea da. Jainkoak jarri du gure bihotzean, eta Espiritu Santuak egiten du otoitz gugan. Gauza asko behar ditu gizakiak, baina maitatua izatea eta Jainkoak berekin hartzea bilatzen du batez ere. Eta Jainkoak maite gaitu, eta bere Espiritua eman ez hartzen gaitu.

Hala eta guztiz ere, batzuetan agian ez digute entzuten. Horretaz konturatzea grazia da, Jainkoa pertsona librea dela ikusten baitugu, askatasunez maite gaituela eta ezin dugula eta ez dugula behartu behar. Bere askatasunean errespetatu behar dugu. Jainkoari esker, badakigu Hira gure alde dagoela beti. Horregatik, Jainkoa maite dutenentzat euren onerako da guztia. Eskaera otoitzean, kontua ez da Jainkoa garaitu nahi izatea, guk nahi duguna egin dezan. Fededunarentzat, Jainkoak garaitzea da benetako garaipena, **Haren aurrean makurtzea**, haren maitasun baldintza-gabea onartzea.

Abraham Jainkoaren laguna da. Jainkoak ez dio ezkututzen zer egin nahi duen (*Gn* 18,16-33). Abrahamen aholkua ere eskatzen du, erabaki larria hartu nahi duenean, herri bekatari osoa zigortzea, adibidez. Abrahamek zentzuz arrazoitzen du, Jainkoa ongi geratzea bilatuz, eta ez injustizia bat egitea errudunak eta errugabeak zigortuta. **Haren adiskidetasuna** hain handia denez, errugabeengatik errudunak barka ditzan iradokitzen da Abraham.

Lastima, Jaikoarekin duen tratu horretan Abraham Jainkoak herriaren salbamenari ezarritako prezioa pixka bat gehiago jaisten ausartu ez izana: “Israelgo seme bat salbatzea mundu osoa salbatzea bezala da”, dio esaera errabiniko batek. Prezio ona lortu zuela iruditu zitzaion Abrahami. Tamalez, herria ez zeuden hamar errugabe ere. Eta Jainkoa **errugabe batengatik** barkatzeko prest egongo zatekeen. Eta, agian, ez zen beharrezkoa herrian egotea. Nahikoa zen bere lagun Abrahamek, errugabe batek, eskatze. Izan ere, Jesusek denontzat eskatu zuenean barkamena, Aitak eman egin zion. Garrantzitsua ez da errugabeen kopurua, Jainkoaren maitasunak maitasunezko erantzuna aurkitzen duela baizik. Eukaristian, maitasun hori hartu eta otoitz eta zerbitzu bihurtutako gure maitasunarekin erantzuten dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, eska dezagun Espiritu Santuaren indarra, Berak lagun diezagun munduko beharren alde otoitz egiten.

- Eska diezaiogun errukizko Jainkoari, Kristo ezagutzen hasi eta bataioko grazia hartu nahi dutenen alde, beraien haurrak bataiatzeko prestatzen direnen gurasoen alde.
- Eska diezaiogun Jaunari gure herriaren alde eta bertan bizi garen guztion alde, baita munduko herri eta nazio guztien alde ere, bakea eta bizimodu hobea izan ditzagun.

—Eska diezaiogun Jaunari mundu zabalean pertsegituak diren kristauen alde eta beraien pertsegitzailen alde, izan dezatela begirunearen bihotz-berria.

—Eska diezaiogun Jaunari hemen bilduak gaudenon alde eta otoitzean gogoan ditugun guztien alde, fedean gorde gaitzan eta bere Semearen erreinuan bildu.

Entzuiozu, Aita on, zeure herriari eta egizu Zure Semeak erakutsi zigun seme-alaben otoitza uler dezagula; emaguzu Zure Espiritua, Jesusek agertu zuen konfiantza berarekin Zuri dei eginez Zure maitasunaren esperientzian hazi gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Eukaristiako sakramentua hartu dugu, Jauna,
zure Semearen nekaldi-piztueren betiko oroigarri;
berak neurrigabeko maitasunez eman digun dohain hau
izan dakigula salbamenerako.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Uztailaren 25ean **SANTIAGO APOSTOLUA**

Agurra

Apostoluen oinarri-gainean Eliza eratu zuen Kristo Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Gure fedea, Jesusek aukeratu zituen ikasle haien fedean eta testigantzan oinarritzen da. Horregatik ospatzen ditugu apostoluak eta hartzen ditugu zaindaritzat. Santiago apostoluaren oroitzapenak, gure fedea indartzen laguntzen digu, Jesusi jarraitzeko asmoa berrituz eta testigu izatera bidaliz.

Damu-otoitza

Isilean, Jainkoaren aurrean jarri, eta eska dezagun Ebanjelioaren grazia berritzailea, Eukaristia hau ospatzeko presta gaitzan.

—Jesus Jauna, hilen arteko lehen-semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatuaren eta heriotzaren garailea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure piztuera eta bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
Santiagoren odol-isurtzeaz sagaratu zenituen Apostoluen
lehenengo ebanjelizatze-lanak;
egizu, zure Elizak, haren zaindaritzaz etengabe indarberriturik,**

**sendo iraun dezala haren testigantzaz
eta gure herriek leial jarrai diezaiotela Kristori mendeen azkeneraino.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren hitza entzutera goaz Santiago apostoluaren festaburuan. Apostoluen bidez etorri zaigu Jesusen Berri Ona. Eta berri on hori ekarri ziguten gizon haiei begiratzen diegu. Gu bezala ahulak izan arren, berri onarekiko leialtasunari heriotzeraino eutsi zioten.

Lehenengo irakurgaia (*Eg 4, 33; 5, 12. 27-33; 12, 2*)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak. Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian apostoluen eskuz.

Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak esan zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue».

Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua».

Erantzun honek beren onetik atera zituen batzarkideak, eta hil egin nahi zituzten apostoluak. Eta Herodes erregeak ezpataz hilarazi zuen Joanen anaia Santiago.

Erantzun-salmoa (*Sal* 67 [66], 2-3. 5. 7-8)

Lur o-so-a, e-gi-o-zu i-rrin-tzi Jain-ko-a-ri.

- ✠. Erruki bekigu Jainkoa eta bedeinka **gaitz**ala, ager diezagula aurpegi **argi**a, ezagut dezaten munduan zure **bide**a, nazio guztietan Zugandiko sal**ba**mena. ✠.
- ✠. Poztu bitez kantari naz**io**ak, zuzentasunez baitituzu gobernatzen **herri**ak eta gidatzen munduan naz**io**ak. ✠.
- ✠. Lurrak bere uzta **e**man du, Jainkoak, gure Jainkoak, bedeinkat**zen** gaitu. Bedeinka gaitzala **jain**koak, izan diezaiola begirune mundu **o**soak. ✠.

Bigarren irakurgaia (2 *Ko* 4, 7-15)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Altxor baliotsu hau buztinezko ontzian daramagu, argi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoagandik datorrela, eta ez gugandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaltzen ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera

botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu geugan, Jesusen bizia ere geugan ager dadin.

Bizi garen bitartean, beti heriotzara garamatzate Jesusengatik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere ager dadin. Horrela, geugan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia.

Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espíritu bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

Aleluia



∇. Gure Elizaren izar dirdaitso, Santiago apostolua:
bakean dago zure **gor**putza,
gure artean bizi da **z**ure aintza. R̄.

Ebanjelioa (Mt 20, 20-28)

Homiliarako argibideak

Apostoluen oinarri gainean

Apostoluen festaburua aukera bikaina izan ohi dugu gure kristau izatearen eta Eliza izatearen oinarriak aztertu eta indarberritzeko. Santiagoren festaburua ere, aukera paregabea dugu gure fededun izatearen hariak berritzeko eta hari horiek behar bezalako tentsioz tiratuak ote dauzkagun arakatzeko. Izan ere, fededun izatea, apostolutar izatea da: alegia, gure fedea apostoluen testigantzan eta aitormenean finkatzen zaigu, eta beti ere gure fedea apostoluen eskutik sendotu behar du.

Santiago nor zen? Nolakoa zen? Gaurko Ebanjelioan ematen zaizkigun zehaztasunak hor dauzkagu: handizalea nonbait, Jesusen Erreinua giza irizpidez neurtzen zuen. Besteak baino gehiago izan nahi zuen, aurretik agertu. Mundutar jokabide baten desio eta egarriak zituen bere barnean. Ez baitzuen ulertu, beste apostoluek ere ez zuten ulertu, Jesusen Erregetza nola eta nondik mamitzen zen.

Zerbait aldatu da, ordea. Pazko-misterioaren Espirituak hankaz gora jarriko ditu gizon haien usteak eta barne-joerak. Jesusen pazko-bidea erabat itsatsiko zaie beren barnean. «Nik edango dudak kalizak» (Nekaldiak eta Pazko-misterioak, alegia), erabat aldatu ditu apostoluak. Jesus, izan ere, ez dute handizale eta agintegose ikusten. Jesusek azkeneraino zerbitzatu du, besteen onerako bizia emateraino. Eta zerbitzu-mota berri honek, bestelako postura batera daramatza jarraitzaile haiek. Gure legea, besteen gainetik egotea baldin bada, besteak menperatzea, norbera igotzea... «ez bedi izan horrela zuen artean». Eta Jesusen hitz horiek, agindua ez ezik, gurutzerainoko programa dira. Eta apostoluen bihotzean Espirituzko hitzez idatzia geratuko den programa. Aldaketa bikaina.

Aldaketa hori nolakoa izan den? Lehenengo irakurgaietan ikus dezakezu. Hor agertzen zaizkigu gizon haiek, adoretu, munduko ahalmen eta aginteen aurrean beldurrik gabe, Jesus berpiztuaren berri ematen. Mehatxu, zigor, agindu... ez alferrik! «Jaungoikoaren

esana egin behar da aurrena». Lehen handizale, berekoi, beldurti. Orain adoretzu. Eta a zer adorea! Santiagok bere bizia emango du (bera izan zen horretan lehenengoa) Jainkoaren esana betetzeagatik. Nork ikusi eta nork ikusiko? Lehen izanzale zena, orain bizia galtzeko pronto. Zerbait berria ulertu dute, zalantzarik gabe: Jesusen Kalizak aldatu ditu.

Orain uler genezake San Paulok bigarren irakurgaiaren esana. Apostoluaren indarra ez dago apostoluarengan berarengan. Apostolu izatea ez da berez indartsu eta ahalmentsu izatea. Jainkoak agertu behar du apostoluarengan indartsu. Eta Jainkoa indartsu ager dadin, ikaslea ahula izatea onena. Giza-ahultasuna, Jainkoaren indarrez janzten baita. Eta zein indartsu den Jainkoa, berarengatik ahul egiten direnengan azaltzen da. Bai: beti apostolutza (Jainkoaren Erregetza zerbitzatzea) larrialdien eta erasoaldien artean mamitzen da. Horietan (larrialdi eta erasoaldien ahultasunetan) Jesus berpiztuaren bizi indartsua agertzen da.

Santiagoren festaburua aukera paregabea dela esan dugu gure bizitza eta kristau-jarduna aztertzeko. Honi begira diezaiokegu:

- Lehenengoa: Jainkoak garen bezala aukeratu gaitu, handizale, indargose, izanzale... Baina, bere Pazko misterioaren ahalmenez aldatu egiten gaitu: Jesusen bidetik bakarrik izan gaitzke apostolu. Handizalekeriak eta utzi beharra dauzkagu. Horiek ez dira Jesusen jokabide. Bide mundutarra da handikeriena.

- Bigarren: Jesusen kaliza edateak zerbitzua esan nahi du. Jainkoaren esana jarri beste asmo eta programa guztien aurretik eta gainetik. Horretarako, apostoluen Espiritu bera beharko du Elizak. Espiritua! Izan ere bestela, hain erraza da giza- bideetan gelditzea, handinahikerietan erortzea, gezurraren zerbitzuan jaustea... Gurutze-bidea ez baitzaigu maitagarri gertatzen. Eta ez zaigu

gustagarria gertatzen bide hori, ahultasuna eta pobretasuna eta txikia izatea eta ez ditugulako maite.

- Hirugarren: Gure apostolutza-egintzaren oinarriak non dauzkagu jarriak? Ez al gara gehiegi fidatzen geure programa handi eta zehatzez? Eta, horrexegatik, ez al dugu apostoluen ausardia libre eta freskoa galdu? Ez al gabilta zenbait indarren morroi kobarde bihurturik? Oraindik ez ote dugu ulertu «haren kaliza» edan behar dela apostolu izateko? Gure eliz elkarteek bizi duten ahulaldia izan daiteke aukera ederra Berri Onaren bideetara etortzeko. Gure ahulaldian gertatzen da Jainkoaren indarra. Gure eskasian egingo du Jainkoak eliz elkarte berria. Ez dezagun ahaztu: Jainkoaren jokabideak eta irizpideak ez dira gizon-emakumeonak bezalakoak. Une eskasenean gaudelarik, egon gaitezke une aukerakoenean.

Ospatzera goazen Eukaristia da apostolu egiten gaituen Kaliza. Edan dezagun, eta berak egin gaitzala Jainkoaren esanaren zerbitzari. Esker onezko kopa santuak eman diezagula gure herrian Ebanjelioa zerbitzeko adorea eta poza. Apostolutar fedea aitor dezagun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Otoitz egin diezaiogun, senideok, apostoluen fedean oinarritu nahi izan gaituen Jainkoari, eta eska diezaiogun denon alde:

- Elizak, altxor bezala gorde dezan apostoluen predikaziotik jaso zuen fede eta leialtasunez hots egin diezaiela belaunaldi guztiei.
- Herrietako arduradunen alde, eskuzabalez eta zerbitzu jarreraz bete dezaten, jendeak beraien esku utzi duen ardura.
- Apostolu martirien antzera, pertsekuzioa jasan eta bere odola isurtzen duten egungo kristauen alde. Horien testigantza biziak denon fedea suspertu dezan.

—Hemen bilduak gaudenon alde, Santiago Apostolua ospatzeak Jesu Kristorekin egiaz lotu gaitzan.

Gure Salbatzaile zaren Jesus Jauna, Zuk dei egin zenion Santiagori, sareak utzi eta jarrai diezazun; entzun gure otoitzak eta sendotu gure borondatea bera bezala Zure deiarekin leial izan gaitzen. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
Santiago apostolu eta gure zaindariaren festaburua ospatzean
pozik hartu ditugun dohain santuengatik;
hura laguntzaile dugula,
zaindu gaitzazu beti zeure babespean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Uztailaren 31n
LOIOLAKO SAN IGNAZIO*

Agurra

Gugatik gizon egin zen Jesu Kristo gure Jaunaren errukia izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Aurten bete dira 500 urte, Loiolako San Ignaziok, bihotz-berritu eta bizitzan beste bide bati ekin ziola. Festaburu eder honetan, beraz, badugu zer eskertua. Jaunak eman digun dohaina, egiazko eskakizun bihurtzen baitzaigu. Ignazio dohaina dugu, eta deia dugu.

San Ignazioren fede berean bat egin dezagun eta egigun festa. Jaso dezagun festara Ignazio zaindaritzat aitortzen duen gure herriaren bihotza ere.

Damu-otoitza

Loiolako Ignazio bezala, gu ere Jainkoaren aintza eta gizakientzat ona izatera deituak gaude. Aitor dezagun isilune eginez, Jainkoarengandik askotan urruntzen garela, eta onar dezagun beragandik datorkigula salbamena.

—Jesus Jauna, hilen arteko lehen-semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatuaren eta heriotzaren garailea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure piztuera eta bizia: Erruki, Jauna.

* *Ikus gaztelaniazko lagungarria 72. orrialdean*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, Loiolako Ignazio santua eman zenion Elizari
zure izenaren aintza gero eta gehiago zabaltzeko;
egizu, hura lagun eta etsenplu dugula,
lur honetan borroka eginik,
irits dezagula garaipen-koroa harekin batean zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoa maitatzeak zoriona dakar. Harengandik urruntzeak, berriz, zorigaitza eta hondamendia. San Ignaziok hartu zuen bidea argia da: dena, egiten den guztia, beti Jaunaren aintzarako egitea. Guretzat ere jokalege ederra!

Lehenengo irakurgaia (Dt 30, 15-20)

Deuteronomioa liburutik

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut gaur aurrean. Aditzen badituzu gaur nik ematen dizkizudan Jaunaren zeure Jainkoaren aginduak, Jauna zeure Jainkoa maitatuz, haren bidean ibiliz eta haren agindu, lege eta erabakiak betez, biziko zara eta ugarituko eta bedeinkatuko zaitu Jaunak zeure Jainkoak, jabetzan hartzera zoazen lurraldean.

Baina zure bihotza okertzen bada, aditzen ez baduzu eta jainko arrotzen aurrean ahuspeztu eta haiek gurtzeko tentazioari amore ematen badiozu, gaur iragartzen dizut erabat hondatuko zarela, eta ez duzula luzaro iraungo, Jordanez beste aldean jabetzan hartzera zoazen lurraldean.

Zeru-lurrak deitzen ditut gaur zure aurka testigu: bizia eta heriotza, bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizut aurrean. Zuk eta zure ondorengoek bizi nahi baduzue, aukera ezazu bizia, Jauna zeure Jainkoa maitatuz, haren esana adituz eta hari lotuz. Horretan dago zure bizia eta hortik datorkizu Jaunak zure guraso Abrahami, Isaaki eta Jakobi zin eginez agindutako lurraldean luzaro bizitzeko ahalbidea».

Erantzun-salmoa (Sal 1, 1-2. 3. 4 eta 6)

Bai do - ha - tsu gau ta e - gun Jau - na -
 ren le - ge - a haus - nar - tzen du - e - na.

- ℣. Zorionekoa gaiztoen aholkuari jarraitzen ez diona, ' bekatarien bidean ez **dabilena**, ezta lotsagabeen biltzarrean esertzen ere; baizik eta Jaunaren legean atsegin **duena**, haren legea gau eta egun hausnartzen **duena**. ℟.
- ℣. Ur-ertzean landaturiko zuhaitzaren antzeko**a** da: ematen du bere garaian **fruitua**, eta ez zaio historik **ihartzen**; egiten duen guztia ongi zaio **ateratzen**. ℟.

∇. Ez horrela gaiztoak, ez **hor**rela,
 haizeak daraman galautsaren antzeko**ak** dira.
 Jaunak zaintzen du zintzoen **bide**a;
 gaiztoena, berriz, galdu **egiten** da. ℞.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 10, 31–11, 1)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteei baizik, guztiak salba daitezten.

Izan zaitetzte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

Aleluia (Mt 5, 12a)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Poztu zaitetzte eta **alaitu**,
 handia izango baita zuen saria **zeruetan**. ℞.

Ebanjelioa (Lk 9, 18-26)

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Jesus otoitzean bakarrik ari zela, ikasleak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «Nor naizela dio jendeak?» Haiiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Jesusek,

orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias».

Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Ete esan zien, gainera, ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztuko da».

Eta hau esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia Nigatik galtzen duenak salbatu egingo du». Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?

Beraz, norbait Nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere aintzaz eta Aitaren eta aingeru santuen aintzaz beterik etorriko denean».

Homiliarako argibideak

Kristo oinarri izanik, denean Jainkoa zerbitzatu

San Ignazioren esperientzia osoa, Jesu Kristoganako maitasun pertsonalean errota eta oinarritua dago. San Paulorekin batera esan zezakeen: Eskerrak ematen dizkiot Kristo Jesus gure Jaunari, nire gain bere apostolu-zerbitzua uzteko fidagarri aurkitu nauelako eta zerbitzu hori betetzeko indarrak eman dizkidalako (*1 Tim 1, 12*). Jesu Kristo da Gogojardunen esperientzia serio probatu duenaren eragilea eta bizitzeko arrazoibidea. Kristorenganako maitasun sutsu hori bizitzea da oinarritzkoena. Gogojardunen funtsa Jesus hobeto ezagutzea da, hobeto maitatu ahal izateko eta gertutik jarraitu ahal izateko.

Jesus ezagutu, maitatu eta jarraitu: hiru urrats horiek dira mundu honek duen justizia, askatasun, maitasun eta adiskidetasun egarria ase dezakeen ur garbiaren iturria aurkitzeko bidea. Ezina eta era askotako mina nozitzen duen jendearen egarriak dira horiek. Eta Ignaziok Kristo askatzailea eta biziemailea, gertukoa eta maitasunez betea, askatzailea eta zorion emailea aurkezten digu. San Ignazioren Gogojardunek gure oinarrizko aukerak Kristo izan behar duela erakusten digu. Ongiaren eta gaizkiaren artean aukeratu behar dugu. Bizitza aukeratu behar dugu. Eta bizitza aukeratzea Jauna maitatzea, berari entzutea eta Hari jarraitzea da.

Zaila da Ignazioren espiritu-bizitza osoa hitz gutxitan laburtzea. Baina santuak berak aukeratu dena bildu dezaketen hitzak: zerbitzatu eta maitatu. Zerbitzatzea, gure izate osoa Jesu Kristoren jarraibidean jartzea da gauza guztien gainetik Jainkoa maitatzea. Zerbitzatzea etorri zen Kristori begiratzeak laguntzen digu gizatasunaren betea jarrera horretan aurkitzen.

Ezagutzen zuen Ignaziok, "handien munduan" interesagatik zerbitzatzen duen jendea eta Jainkoaren eta gizakien arteko harremana maitasunezko zerbitzu bezala aurkeztu nahi digu: maitasunez izan gara sortuak eta salbatuak, ez da maitasun handiagorik. Zer egin behar dugu Jainkoa zerbitzatzeko? Ez zaigu zerrenda bat ematen, baizik eta Jainkoa "gauza guztietan" zerbitzatzea proposatzen zaigu, era askotako zerbitzuetan gauzatu daiteke maitasunezko jarrera zabal hori. Beharrezkoa da Espirituaren indarra, une bakoitzean Jainkoak zertan zerbitza dezagun nahi duen ikusteko, sumatzeko.

Gurutziltzatu eta piztutako Jaunari dion maitasuna, Elizarekiko maitasunean egikaritzen da. Ignaziok badaki Eliza osatzen dutenak bekatariak direla, baina Kristok eralda dezakeen emazte bezala ikusten du. Ez da ametsetako elizaz mintzo, ezagutzen du

errealitatea, baina badaki Jaunak aurrera daramala Jesusen gizon egitearekin hasi zen salbamena, Espirituaren indarrez eta Pedro ezaugarritzat duen Elizaren baitan. Ignaziok badaki pertsonen bihotz-berritzea eta erakundearen eraldaketa beharrezkoa direla baina horrek ez dio galarazten Eliza maitatzea, arrazoi nagusi batengatik: Kristok ere Eliza maite duelako.

Guk ere eliza maitatzen ikas dezagun, ama bezala aurkezten digu: “Eliza ama santu” bezala. Eliza ama bezala maitatzen dugun neurrian dugu Jaunaren Espiritua. Elizarekin sentitzea, Eliza ezagutu eta maitatzea esan nahi du, ez gizakien ona bilatzen duelako bakarrik. Eliza maitatzea, bertan Jainkoaren maitasun-misterioa aurkitzea da.

Erreinua, Eliza baino handiagoa da, noski. Baina guk Elizan aurkitzen dugu Jainkoaren Erreinuaren hazia eta ezaugarria. Bertan jaso dugu daukagun gauzarik handiena: Kristo. Eta bertan ikasten dugu denean maitatu eta zerbitzatzuz bizitzen. Ignaziok bezala.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: Loiolako Ignazio santua otoitz lagun harturik, egin diezazkiogun eskariak Jainkoari, Jesusen izenean.

- Elizaren alde: ebanjelioaren argitan, edonon eta nonnahi, gizakiaren ongia eta Jainkoaren aintzarik handiena bilatu dezan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Donostiako gure Elizbarrutiaren alde: san Ignazioren antzera, gure elizbarrutiko elkarteetan, beroien biziak Jainkoari eskeiniz eta elizaren alde lan eginez biziko diren gazte eta gizon-emakumeak izan ditzagun. Eska diezaiogun Jaunari.

—Sinesgabe eta urrutiratu guztien alde: federik gabe edota Elizatik urrun bizi direnek, gure ejenplu eta Jainkoaren graziaz, Jesu Kristo salbatzaile bakartzat aitortuz, egiazko Fedea ezagutu dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.

—Gure parrokiaren alde eta hemen bildurik gaudenon alde: Loiolako Ignazio santuaren antzera, gauza guztietan Jainkoaren aintzarik handiena, Elizaren ona eta gure senideen zoriona bilatu ditzagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Aita, gure eskari apalak eta gida itzazu gure pausoak; Loiolako Ignazio santuaren antzera gogoz zerbitzatzen jakin dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

**Jainko Jauna,
izan dakizkizula atsegin
Loiolako Ignazio santuaren ospakizun honetan
ekarri dizkizugun eskaintzak;
eta santutasun guztiaren iturri den sakramentu honek
egin gaitzala gu ere santu egian.
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri.

San Ignaziok irakatsitako bideari jarraitzera dei egiten baitiguzu,
uste oneko bihotz otzanez
Espirituaren ahotsa entzun dezagun;
gure bizitza Kristorenarekin bat egitera
eta, bertute guztien eredu denez,
beraren antzeko izatera bultzatzen gaituzu:
beraren bidez aukeratu gaituzu, Aita errukitsu horrek,
zure dohainei erantzunez
fedearen bidean aurrera egin dezagun,
itxaropenak sendo irauten lagun diezagun
eta maitasunak onbidean ibiltzeko indar gaitzan.

Horregatik, orain eta betieran
santu eta aingeru guztiekin batean
goraki abesten dizugu,
poz betean kantari:

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jauna, Loiolako Ignazio santuaren jai honetan
Zuri eskerrak emateko eskaini dizugun gorespen-opariak
eraman gaitzala betieran zure handitasun aintzatsua gorestera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

31 de julio
SAN IGNACIO DE LOIOLA

Saludo

La misericordia de nuestro Señor Jesucristo, que se hizo hombre por nosotros, esté con todos vosotros.

Monición de entrada

Este año se han cumplido 500 años de que San Ignacio de Loiola, una vez convertido, emprendió un nuevo camino. En esta hermosa solemnidad queremos agradecer ese don. Ignacio es un don de Dios que es al mismo tiempo una llamada para nuestra propia vida.

Celebremos en esta fiesta la misma fe de san Ignacio. Traigamos a la oración al pueblo puesto bajo el patrocinio de San Ignacio.

Acto penitencial

Como Ignacio de Loiola, también nosotros somos llamados a buscar la gloria de Dios y el bien de los hermanos. Confesemos en un momento de silencio que a menudo nos alejamos de Dios, y aceptemos la salvación que nos viene de Él.

—Tú, el Primogénito de entre los muertos: Señor, ten piedad.

—Tú, el vencedor del pecado y de la muerte: Cristo, ten piedad.

—Tú, la resurrección y la vida: Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna.

Oración colecta

**Oh, Dios, que has suscitado en tu Iglesia
a san Ignacio de Loyola para propagar la mayor gloria de tu nombre;
concédenos que, combatiendo en la tierra
con su protección y su ejemplo,
merezcamos ser coronados con él en el cielo.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.**

Liturgia de la Palabra

Amar a Dios es fuente de felicidad. Alejarnos de Él nos lleva a ala desdicha y el abismo. El camino tomado por San Ignacio es claro: hacerlo todo, absolutamente todo, para gloria de Dios. ¡Una buena lección para nosotros!

Primera lectura (*Dt 30, 15-20*)

Lectura del libro del Deuteronomio

Moisés habló al pueblo, diciendo: «Mira: hoy pongo delante de ti la vida y el bien, la muerte

y el mal. Pues yo te mando hoy amar al Señor, tu Dios, seguir sus caminos, observar sus preceptos, mandatos y decretos, y así vivirás y crecerás y el Señor, tu Dios, te bendecirá en la tierra donde vas a entrar para poseerla.

Pero, si tu corazón se aparta y no escuchas, si te dejas arrastrar y te postras ante otros dioses y les sirves, yo os declaro hoy que moriréis sin remedio; no duraréis mucho en la tierra adonde tú vas a entrar para tomarla en posesión una vez pasado el Jordán.

Hoy cito como testigos contra vosotros al cielo y a la tierra. Pongo delante de ti la vida y la muerte, la bendición y la maldición. Elige la vida, para que viváis tú y tu descendencia, amando al Señor, tu Dios, escuchando su voz, adhiriéndote a él, pues él es tu vida y tus muchos años en la tierra que juró dar a tus padres, Abrahán, Isaac y Jacob».

Salmo Responsorial (*Sal* 1, 1-2. 3. 4 eta 6)

℟. Su gozo es la ley del Señor.

℣. Dichoso el hombre que no sigue el consejo de los impíos,
ni entra por la senda de los pecadores,
ni se sienta en la reunión de los cínicos;
sino que su gozo es la ley del Señor. ℟.

℣. Será como un árbol
plantado al borde de la acequia: da fruto en su sazón
y no se marchitan sus hojas;
y cuanto emprende tiene buen fin. ℟.

℣. No así los impíos, no así;
serán paja que arrebatara el viento.
Porque el Señor protege el camino de los justos, pero el
camino de los impíos acaba mal. ℟.

Segunda lectura (*1 Cor* 10, 31–11, 1)

Lectura de la primera carta del apóstol san Pablo a los Corintios

Hermanos: Ya comáis, ya bebáis o hagáis lo que hagáis, hacedlo todo para gloria de Dios. No deis motivo de escándalo ni a judíos, ni a griegos, ni a la Iglesia de Dios; como yo, que procuro contentar en todo a todos, no buscando mi propia ventaja, sino la de la mayoría, para que se salven.

Sed imitadores míos como yo lo soy de Cristo.

Aleluya (*Mt 5, 12a*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∩. Alegraos y regocijaos,
 porque vuestra recompensa será grande en el cielo. Ɱ.

Evangelio (*Lc 9, 18-26*)

✠ Lectura del santo Evangelio según san Lucas

Una vez que Jesús estaba orando solo, lo acompañaban sus discípulos y les preguntó: «¿Quién dice la gente que soy yo?» Ellos contestaron: «Unos, que Juan el Bautista; otros, que Elías, otros dicen que ha resucitado uno de los antiguos profetas». Él les preguntó: «Y vosotros, ¿quién decís que soy yo?» Pedro respondió: «El Mesías de Dios».

Él les prohibió terminantemente decírselo a nadie, porque decía: «El Hijo del hombre tiene que padecer mucho, ser desechado por los ancianos, sumos sacerdotes y escribas, ser ejecutado y resucitar al tercer día».

Entonces decía a todos: «Si alguno quiere venir en pos de mí, que se niegue a sí mismo, tome su cruz cada día y me siga. Pues el que quiera salvar su vida la perderá; pero el que pierda su vida por mi causa la salvará. ¿De qué le sirve a uno ganar el mundo entero si se pierde o se arruina a sí mismo?»

Pues si uno se avergüenza de mí y de mis palabras, también el Hijo del hombre se avergonzará de él cuando venga en su gloria, en la del Padre y en la de los ángeles santos.

Oración de los fieles

Hermanos: Por intercesión de san Ignacio de Loyola, dirijamos nuestras oraciones a Dios, en nombre de Jesús.

- Por la Iglesia: para que, a la luz del Evangelio, en toda circunstancia y lugar, busque el bien de la humanidad y la mayor gloria de Dios. Roguemos al Señor.
- Por nuestra diócesis de San Sebastián: para que en las comunidades cristianas de nuestra diócesis surjan jóvenes, hombres y mujeres que como san Ignacio trabajen y entreguen sus vidas a Dios y a la Iglesia. Roguemos al Señor.
- Por los que no creen: para que las personas que viven sin fe o alejadas de la Iglesia, descubran con nuestro ejemplo y la gracia de Dios la Fe verdadera, y reconozcan a Jesucristo como el único Salvador. Roguemos al Señor.
- Por nuestra parroquia y por todos los que estamos aquí reunidos: para que, a imagen de san Ignacio de Loiola, busquemos en todas las cosas la mayor gloria de Dios, el bien de la Iglesia, y el bienestar nuestros hermanos. Roguemos al Señor.

Escucha, Señor, nuestras humildes oraciones y guía nuestros pasos; para que, a imagen de san Ignacio de Loiola, sepamos servirte con valentía. Por Jesucristo nuestro Señor.

Oración sobre las ofrendas

**Que te agraden, Señor Dios, las ofrendas que te presentamos
en la solemnidad de san Ignacio de Loiola,
concédenos que estos divinos misterios,
que estableciste como fuente de toda santificación,
nos santifiquen también en la verdad.
Por Jesucristo, nuestro Señor.**

Prefacio

En verdad es justo y necesario,
es nuestro deber y salvación
darte gracias siempre y en todo lugar,
Señor, Padre Santo, Dios todopoderoso y eterno.

Tú nos llamas a seguir el camino de san Ignacio,
para que, con corazón dócil y confiado,
escuchemos la voz del Espíritu;
y nos impulsas a conformar nuestra vida con la de Cristo e imitarle
como modelo de todas las virtudes:
por Él, Padre de misericordia, nos has elegido
para que respondiendo a tus dones,
recorramos el camino de la fe,
seamos sostenidos con la ayuda de la esperanza,
y edificados con la fuerza de la caridad.

Por eso, ahora y por toda la eternidad,
unidos al coro de los ángeles,
te cantamos con devoción,
y te aclamamos diciendo:

Pos-comunión

**Señor, que el sacrificio de alabanza
que te hemos ofrecido para darte gracias,
en honor de san Ignacio de Loiola,
nos conduzca a la eterna glorificación de tu majestad.
Por Jesucristo, nuestro Señor.**

